



# ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

2016ko urtarrilaren 28a | XXXVI. urtea | 654. zenbakia



**Ane PETRIRENA**  
Espainiako urteko marka onena egin du sunbildarrak

## Gehigarri berezia

Inauteriak → 23-33

## GOIZUETA → 38

Gasolindegia buruzko galdeketa egingen dute

## ARESO → 42

Leitzaldeko emagin zerbitzua erabiltzeko deia

## ESKUALDEA → 44

2016ko Turismo egitasmoak aurkeztu dituzte

## URDAZUBI → 44

Espainiako Vueltako etapa bukaera eta hasiera

Martxel ARRIBILLAGA | Berako riderra

# Bizikletarekin hegan egiteko artea

12 urterekin hasi zen bizikleta ganean salto eta akrobazia ikusgarriak egiten eta afizioa ofizio bihurtzea lortu du. Azken lauzpabortz urtetan freestylean profesional moduan lehiatzen da, gaur gaurkoz munduko onenen artean. Orain arteko ibilbideari erreparoa eman eta etorkizuneko erronkei buruz aritu da solasean.

KIROLIZKETA → 48



Bene AGIRRE | Medikua

## ELKARRIZKETA → 3

Doneztebeko Osasun etxean kirurgia txikiko ebakuntzak egiten ari dira abuztuaz geroztik, zerbitzua herritarrengana hurbildu eta itxaron zerrendak arintzeko asmoz.



## ERREPORTAJEA → 4-5

Manex arrazako artilea ardatz hartuta, Iletegia proiektua lantzen ari dira Saran. Bertako artileari balioa eta irtenbidea emateko.

## ZOKKETAK → 56



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58**ra edo idatzki [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)-era

ARGAZKIA:  
GALDER IZAGIRRE

**Juarterrak**

**5** endara DJ  
karaoke *00:00h*  
*01:00h*

**6** DJ Luismi  
*22:00h*

**13** DJ Pali  
Elizondoko Michael Jackson-a  
*00:00h*

**20** Bertso afaria  
Amets Arzallus eta Julio Soto  
...ondotik DJ

**27** Mojito Gaua - mojito dastaketa  
1:00 - 2:00 kontsumizioarekin opari ziuerra  
Techno besta DJ Aimar-ekin

Sagardotegi menua - 30€  
Ostailak 18 izena emateko epaia

**Bar ELCAFÉ**

the moment

**Ostaila**

# bardoak 2016

nafarroako taldekako bertso ekimena



**URTARRILAK 29 OSTIRALA**  
Leitzako Atekabeltz gaztetxean  
22:00etan, bertso-saioa

<b>ATEKABERTS</b> (Leitza) Ander Fuentes "Itturri" Joanes Illarregi Xabat Illarregi	<b>BARANETAK</b> (Barañain) Ander Baiano Sahats Aleman Edurne Errea Iñigo Aranguren
---	--

**URTARRILAK 31, IGANDEA**  
Lesakako Arrano elkartean  
12:00etan, bertso-saioa

<b>UNIBERTSOLARIAK</b> (Lesaka) Josu Sanjurjo Jose Juan Zubieta "Etxabe" Jon Silveira Iban Garro	<b>BOTA LASAI</b> (Altsasu) Aitziber Grados Idoia Granizo Ekain Alegre Joxema Leitza
---	---

15:30ean, bertso-saioa

<b>TANTIRUBERTSO</b> (Lesaka) Eneko Fernandez Ioar Tainta Maddalen Lopez Iñigo Olaetxea	<b>ATEKABERTS</b> (Leitza) Ander Fuentes "Itturri" Joanes Illarregi Xabat Illarregi
--	---

antolatzailea: nafarroako bertsozale elkartea

laguntzailea: ttipi-ttapa

Informazio osoa eta sarrerak:

**WWW.BERTSOZALE.EUS**

Baztan, Bortziriak eta Malerrekako herritarrek Doneztebeko Osasun Etxean egin ditzakete abuztuaz geroztik kirurgia txikiko ebakuntzak. Benedicto Agirre medikuak

eskaintzen du zerbitzua astearteetan 16:00etatik 20:00etara. «Larruazalean ateratzen diren koskor txikiak edo handiak, orbanak, karitxak... denetik kentzen dugu herniak

izan ezik» azaldu dio TTIPI TTAPari medikuak. Premiazkoa den zerbitzua dela dio, «gaitasuna eta bitartekoak baldin baditugu, horren alde egin beharko da ezta?».

**Benedicto AGIRRE** | Donezteben kirurgia txikia egiten duen medikua

# «Prozesua sinpletu eta itxaron zerrendak arindu nahi ditugu»

**Eneritz IRAOLA** |

## Zer da kirurgia txikia?

Anestesia lokala erabiliz azalean egiten den kirurgia da. Larruazalean ateratzen diren koskor txikiak edo handiak, orbanak, karitxak... kentzen ditugu, denetik herniak izan ezik. Urdazubin duela urte asko hasi nintzen zerbitzua eskaintzen eta sei hilabete inguru daromatxagu, Donezteben kirurgia txikia egiten. Baztan, Malerreka eta Bortzirietako herritarrei ere zerbitzua eskaintzen diegu horrela. Astearte arratsaldetan egiten ditugu interbentzio hauek Doneztebeko osasun zentroan arratsaldetik 4etatik 8etara.

## Zergatik da garrantzitsua zerbitzu hau eskaintzea?

Lehenbiziko asmoa bertako jendeari gauzak erraztea da. Zerbitzu hau hemen eskaini arte, kirurgia txikia behar zuenak hiru aldiz joan behar zuen gutxienez medikuarengana. Lehenbiziko bisita herriko medikuarengana egin behar izaten zuen, berak espezialistarengana bidaltzeko. Espezialista gehienak Iruñean izaten dira eta hark ikusi ondotik, hirugarren aldiz joan behar izaten zen kirurgia egiteko. Joan-etorrian ibili behar izaten zuten, gure eskualdetik Iruñerako bidea



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Astearteetan, 16:00etatik 20:00etara eskaintzen dute zerbitzua Donezteben.

eginez. Bisita batetik bertzerako tartean, sei-zazpi hilabete, urte bat edo gehiago pasatzen zen aunitzetan.

## Itxaron beharrak, arazoa zaildu dezake...

Kontuan hartu behar da kirurgia txikia eginez kendu litezkeen koskor edo orbain hauek, bazueta bertz gaxotasun larriago batzuen adierazleak direla. Horregatik, kendutakoa susmagarria bada analizatzea bidaltzen dugu beti. Gainera, pazientearen egunerokoan eragin zuzena izaten dute aunitzetan koskorra handia delako edo leku deserosoan dagoelako. Adibidez, duela gutxi, paziente bati ezpaine-

## BEHARREZKO PAUSOA

«Zerbitzu hau eskaini arte, kirurgia txikia behar zuenak hiru aldiz joan behar zuen gutxienez medikuarengana. Herriko medikuarengana aurrena, hark espezialistarengana bidali eta espezialistak ikusi ondotik, bertze egun batean kirurgia egiten zizuten. Bisita batetik bertzerako bidean, sei-zazpi hilabete, urte bat edo gehiago pasatzen zen aunitzetan»

an zuen koskor handi bat kendu nion. Ez zen kaltegarria baina bai deserosoa eta gainera, denbora zerman etxetik atera gabe koskorragatik. Hemen kendu izan ez bagenio, zain egonen zen seguruenik oraindik.

## Lanen banaketa ego-kia egitea bilatzen duzue.

Bai noski, hori da zerbitzua eskaintzearen bigarren arrazoia. Aski inportantea da. Ez da konprenitzen ahal, gaur egunean, espezialista batek horrelako gauza ttikietan denbora gal-tzea. Guk, gaitasuna badugu eta egin dezakegu. Zer ari dazirujau bat azaleko grasa koskor

bat kentzen? Sabeleko tumore bat edo kasu larriagoak izanen ditue-nean. Edo traumatologoko bat larruan sartutako azazkal bat ateratzen?

## Zein erantzun izan du?

Paziente asko izan ditugu eta eremu zabalean lan egiten dugunez, horrek guk ere itxaron zerrenda handia izatea eragin du. Zugarramurdin egiten genuen lehen eta orain zerbitzua Doneztebera eramanda, Zugarramurdin ez digute egiteko baimenik ematen. Ahal dugun moduan moldatzen gara, pena ematen baitit eskariari ezin erantzunik. Normalidadearen barruan sartu beharko litzateke zerbitzua eta indartu; aspaldian eman behar zen pauso hau.

## Zerbitzu hau ez balego, zer?

Kezkagarria da egoera, jendea itxaron zerrenda luzea dela ikusita klinika pribatuera joaten delako etsi-etsian edo behar duen ebakuntza egin gabe geratzen da. Osasun publikoan eskaini beharko luketen ebakuntzagatik 500 euro inguru ordaindu behar izaten dituzte. Herrietako medikuek kirurgia hauek egiteko gaitasuna eta bitartekoak baldin badituzte, horren alde egin beharko da ezta?

GIZARTEA → ELKARTEA ETA ENPRESA SORTUTA

# Bertako artileari balioa eman nahian

Saran lletegia proiektua lantzen ari dira Manex arrazaren artilea erabiliz

Artileak balio ekonomiko eta sozial aski apala duela ikusirik, egoerari buelta emateko, lletegia proiektua jarri dute abian. Aña Andiazabal eta Aitor Zubillaga dira proiektuaren buru baina lan sektore desberdinak hartzen ditu bere baitan. Ekonomia iraunkorra bultzatuz, lanpostuak sortu eta artilea laborarientzat gehigarri bat izan dadin lanean dihardute. Artileak antzina zuen balioa berreskura dezan.

## E. IRAOLA

Garai batean artilearen salmentarekin etekina ateratzeko moduan izaten ziren laborariak, baina egun 15 zentimo inguruan ordaintzen da kiloa. Jasotako prezioak artilea moztan izandako gastuak betetzeko ere ez du ematen. Gainera, gizartean ere ez du antzinako estimua eta horregatik, laborari aunitzek hondakinen pare, zaborretara bota edo erre egiten dute.

Sarako laborari baten ordea, artileari balioa emateko modua bazela ikusi zuen eta hari bat bertzearekin lotuz, lletegia sortu dute. Aña Andiazabal eta Aitor Zubillaga arduradunek TTAPI TTAPARI azaldu diotenez, hastapenetan daude «epe luzeko proiektu bat abiatu dugu, mila adar desberdin elkartzen dituena. Momentuz, Manex ardiaren artilea baliatuz, kuenta (edredoa), matalaz (lastaira) eta lumaxak (plumiferoak) ekoizten ari gara baina zabalagoa da egitasmoa».

## ENPRESA ETA ELKARTEA

Proiektuaren adar desberdinak lantzeko beharrezkoa iduritu zitzaion «elkarte bat

## DATUA

# 15

## ZENTIMO

inguru ordaintzen zaizkie laborariei artile kiloagatik. Artilea moztan izandako gastuak betetzeko ere ez du ematen.

plantan jartzea aktibitate ekonomiko baten ondoan». Elkartearen lana batez ere ikerkuntza eta sentsibilizazioa egitea izanen da «horretarako pentsatu dugu artile sail oso bat birsortu behar dela. Enpresaren helburua berriz, bidezko merkataritza eginez ekonomia bultzatu, lanpostuak sortu eta artilea laborarientzat gehigarri bihurtzea da». Beraien usteetan, «laborariak, langileak eta kontsumitzaileak irabazle izateko proiektu bat da. Eta aldi berean, artisautza, laborantza, turismo jasangarria... proiektu batean bildu eta indartu eginen ditu».

## MANEX ARRAZA

Bertako arrazak bultzatzeko helburua izanik, Manex arrazaren artilea bakarrik erabiltzen dute lletegian «aurten



ÚTZITAKO ARGAZKIA

lletegian osatutako kueta, matalaz eta lumaxak merkatuetan saltzen dituzte.

lortu dugun artilea Sarako etxalde batzuetatik heldu da. Halere etorkizunean helburua Euskal Herrian artilearen sare bat eraiki eta Euskal Herriko etxalde batzuetako artilea erabiltzea da».

Ekonomia iraunkorra eta zirkularra bultzatzea ere euren asmoen artean dago, «laborari- en lanbideari balioa eman eta gizartea gaia-

ren inguruan sentsibilizatu nahi genuke; lehen artilearen saltzeak urte guztiko langile bat pagatzeko diru zama sortzen zuen. Egun, artileak ez du bere burua pagatzen».



### BI LAN HILDO

«Aktibitate ekonomi-ko baten ondoan ikerkuntza eta sentsibilizazio lana eginen duen elkarte bat sortzea beharrezkoa zela ikusi genuen»

### ARTILEA

«Artilea isolatzaile ona da beroa eta hotzarentzat, hezetasuna zuputzen du, elektrizitate estatiko ahula sortzen du, tenperatura erregulatzen du eta 400°C azpitik ez da erretzen»

Aña ANDIAZABAL  
lletegiako kidea

### ARTILEAREN EZAUGARRIAK

Artilea baliabide naturala, berriztagarria eta balio ekologiko handikoa da, «berez ez da artile on edo txarrik, erabilera egokia ematea da gakoa». Manex artileak, bertze artileak bezalaxe, «eztabaida ezinak diren ezaugarriak ditu eta kuetak egiteko adibidez, arnas hartzen duen materiala da, usainak ez zaizkio itsasten eta produktu erosoak egin litezke». Iletegian momentuz, matalaz eta lumaxak ekoizten ari dira, baina denborarekin beraien ideia ahalik eta produktu gehien egitea da lastairak, haria, artilezko plumiferoak edo ta ongarrria.

### ETORKIZUNERA BEGIRA

Hastapenetan dira oraindik, baina proiektuak bere helburuak betetzen baditu, artzaintzaren etorkizunaren alde pauso garrantzitsua emanen litzatekeela usate dute «bertako ondareari balioa emanaz».

### PROZESUA

Landu beharreko lehengaia eskuratzeko **artilea moztea** da eman beharreko lehenengo pausoa. **Artilea sailkatu eta zati onenak eta garbienak ekoizteko atxiki** behar dira gero. Ardi bakotxaren artile hoberena hautatzen da baina baztertzen dena ere gorde egiten da bertze erabileretarako.

Artileak berez, kalitate kontrolik ez du pasatzen baina azaldu dutenez, «gure produktuen kalitatea segurtatzeko kriterio batzuei kasu emanen diegu etxalde baten artilea erosi baino lehen». Artilearen kalitatea ardiaren ongizateari lotua dagoela diote «adibidez, kanpogan ibiltzen den ardi baten artilea egun osoa barnean egoten den batena baino hobea izanen da».

Artilearekin lanean segi ahal izateko **garbitu** beharra dago eta horretarako, garbiketa unitate batera eramaten dute. Garbitutako artilea iristen denean artilea **harrotu** egiten da makina batekin. Hor artilea prest da matalazak (lastairak) egiteko. Artilea **kardatu edo napatzen** bada «karda» deitzen den makina handi batekin, kuetak (edredoiak) egiteko prest izanen da. Egin nahi den **diseinua osatu, oihalak prestatu eta jostea** da azken pausoa. Ekoiztutako produktuak Iletegian eros litezke eta baita merkatuetan eta facebooken bidez ere.

UTZITAKO ARGAZKIAK

1.-Artilea sailkatu. 2.- Garbitu eta kardatutako artilea zabaldu 3.- Koltxoiaren betegarria artilea da.



### ARTILE GUZTIA DA ERABILGARRIA

## Baratzean ongarritarako ere bai

Betegarriak egiteko erabili ezin duten artileari aterabide bat eman nahirik, baratzezain batekin zenbait entsegu egin dituzte, «momentuz erabili dugu landareen inguruan estalki gisa emateko». Emaitzarekin, gustura daude «hezetasuna atxiki du, belar txarrik ez dira hazten eta bareak trabatzen ditu».

Gainera, jakin behar da artileak dituen berezko propietatez gain, keratinaz (adarraren molekula) eta potasioaz ere osatua dagoela. Hori dela eta, «artilea, egokia da luzaz egonen diren landareentzat, deskonposizio motela duenez, 6-8 hilabetez poliki poliki ongarrria ematen ari zaio-lakoz».



**Nire txanda**

Jon ABRIL

**Inaute, inaute!**

Inaute sasoiak gara. Jarrera formalak urratzea dute jatorrian inauteek, baina gaur egungo gizartean, galdua du transgresiotik aunitz; *made in china* moztarok gailendu zaizkigu, eta bertze besta bat gehiagotan bihurtu ditugu, kasik. Eta jantzetan ez ezik, izaeran ere galdu dute nabarmen, moldeen haustura ez baita garai bateko bera. Hala ere, desinhibizioarako, urteko gainerako egunetan egiten ez ditugun gauzak egiteko, eta bertzelako jarrera batzuk azalertzeko balio dute inauteriek, oraindik.

Gizartean hain gaizki hartzen ditugun izaera feministak, femeninoak, homosexualak, transexualak, eta oro har, gehiengoarenak ez direnak, naturalago loratzen dira egunotan. Gaur soinean guk jantziko duguna ez diogu bihar onartuko ondokoari, irri egiteraino, iraintzeraino, arbuaitzeraino, ezdeusa bihurtzeraino. Balio dezala, hortaz, inauteak urte osoko transgresioaren abiapuntu izateko, gizartea eraldatzeko motore izateko.

«Balio dezala inauteak urte osoko transgresioaren abiapuntu izateko»

**Ezpala**

Aitor AROTZENA

**Autobusari bultzaka**

Oxfam Gobernu Kanpoko Erakundeak eman du datua: Munduko pertsonen %1ek gainerako %99ak baino aberastasun gehiago pilatzen ditu. Bertzea: autobus batean kabituko liratekeen 62 aberatsek, bertze 3.600.000.000 pertsonen (zenbat futbol zelai behar dira horiek biltzeko?) dutenaren haina gordetzen dute, auskalo non. Oke-rena, geronek bulkatzen dugula autobusa.

**Nabarmentzekoak**Paquita ERASO  
100 urte Elizondon

Errege Bezpera egunean ehun urte bete zituen elizondarrak. Urte luzez Elizondo eta Zigako organujole izandakoak 7 seme-alaba, 9 biloba eta 8 birbiloba bildu zituen bere inguruan.

Oinatz BENGOTXEA  
Nafarroako txotx denboraldia

Urtarrilaren 15ean abiatu zen Nafarroako txotx denboraldia Lekunberriko Toki-Alai sagardotegian. Leitzako pilotari handiak dastatu zuen sasoi honetako lehen sagardo goxoa.

Maite ARAMBURU  
Leitzaldeko emagina

Bost urte daramazki Aresoko Osasun Zentruan emagin zerbitzua eskaintzen, eta inguruko emakumeei erabiltzeko deia egin die. Zerbitzua kentzeko arriskua ere badela ohartarazi du.

**Atzera begira → 2006-I-19 / TTIPI-TTAPA 414 zk.****Miren Errandonea beratarak ur-hornidura proiektua Hondurasen**

Geólogos del Mundo Gobernu Kanpoko Erakundearekin Hondurasen sei hilabete eman zituen Miren Errandonea beratarak, borts herrixkatan ur sarea hobetzen edo eraikitzen. «Etxe guztietan uraren giltza bat dute. Ez da hemen bezala. Guk etxean baditugu ez dakit zenbat giltza. Han bakarrik bat dute, aska moduko ur biltegi tiki batekin, lehenago hemen bezala» adierazi zuen. Bidaia zituen hiru helburuak bete zituela aipatu zigun Errandoneak: «lan egitea, bertako jendea laguntzea eta herrialdea ezagutzea». Alde horretatik, hiri handietan bortizkeri handia bazen ere, bera «toki lasaian» izan zen.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Gofii, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebexa, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leiza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

**2016ko harpidetza sariak**

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagunduaBortziritako Euskara  
Mankomunitateak  
diruz lagunduaMEKNA  
MEZINASOIA KULTURA NAFARRA

## Kolaborazioak

# Bota dezagun demokrazia zerri askara

Juainas PAUL ARZAK

**A**stakeria galanta irudituko zaizu, behar bada, ... baino demokraziari buruz plazaratzen diren iritziak eta praktikak diren manerak gero eta gehiago baztertuko nituzke. Ezkor nago. Batez ere erabakitzen diren gauzak, bozkatu ditugunek itxuratzen dituzten legeak eta agindurak urruntasunean galdu egiten direlako. Brusela, han dago, eta Madril ez sobera hurbil. Iruña? Ez da, ordea, distantzi afera soila. Tamainakoa ere bada. Distantzi eta tamaina fisiko eta mentala. Pare parean jarri edozein parlamentu eta zure herriko etxea: desberdintasun galanta. Oroitu, gainera, zure udalak erabakitako hainbat gauza, batzuetan –maiztasuna zuk zeuk markatu– estratosferakoak, martetarrak iruditu zaizkizula eta ondorioa ateri. Gehienetan, gainera, goitik etorritako aginduenak izaten dira, urrutiko horietan sortuak, alegia. Ez naiz luzatuko. Adibidez, nik oso gutxi dakit abeltzaintzari buruz, seguraski zuk baino puskaz gutxiago.

Eta ezjakintasun hortik aziendekin eraman diren politikak bulegoetan itxuratu dituztela esanen nuke. Are gehiago, zure aldamenean eta solasean ikusten duzu horietako parlamentari bat? Zure aholkuak eskatzen, agian? Kontent zara ondorioekin?

Bale, bale! Arrazoi duzu. Hurbilagokoekin, ez gaude hobekiago. Ez dakit, urrutira joan gabe, zein izan daiteken Aroztegiko nahasmenduaren konponketa. Hori bai, nik ez nuen proiektua egiten eta bertakoentzat kaltegarria izanen dela iruditzen zait. Harritzen nau arazoa teknikoa, politikoki konpondu ez daitekeen zerbaitez zatea... lkusiko da! Dena den, inguruan eta alde ezberdinetan mugitu direnen artean lagun fidagarriak daudela, mesedez, lasaitu, hitz egin eta herritarrei galdetu. Onartu ezin daitekeen jokoa zera da, Lekarozko maiatzeko hauteskundeetan erabaki zutela esatea. Irabazi zutenek irabazita, bozka eman behar zutenei non esaten zitzaiezen Aroztegiko jokoan zegoela? Ondorioztatu behar zuten? Zergatik ez demokrazia zuzena? Alde bakoitzak duen ikuspuntua eta arrazoiak azaldu herritarren artean, bozkatu eta zenbatu. Hori horrela eginez gero, nork izanen du gero haserretzeko arrazoa? Marmarka eta kexuka bat baino gehiago ariko... baina... Norren esku egon da?

**«Irabazi zutenek irabazita, bozka eman behar zutenei erraten zitzaiezen Aroztegiko jokoan zegoela? Ondorioztatu behar zuten? Zergatik ez demokrazia zuzena? Alde bakoitzak duen ikuspuntua eta arrazoiak azaldu, bozkatu eta zenbatu»**

# Norberaren gusturako kafea

Luis GARDE

**D**uela urte batzuk, Iruñeko lagun batekin kafetegitegi batean geundela, kafesnea eskatu nuen. Hark «kafesne bat». Zergatik eskatu nuen «kafesnea», «bat» gabe, galdetu zidan, eta nik ez nekiela, horrela entzuna edo ikasia nuela. Gainera, hobe geratzen zela «kafesnea» hutsa erantzun nion. Lagunak, barrez, «baina kafesne bat edo kafe hutsa nahi duzu?».

Abenduaren hasieran oroitu nintzen pasadizo hartaz, Bartzelonan nengoela akueduktu forala aprobetxatuz, «un café con leche» eskatu nuenean kafetegitegi handi eta dotore batean. Han baziren esertzeko sofa erosoak, dohaineko wifia... Zerbitzariak deus eskatu ez banu bezala begiratu zidan. Nolako kafea? Esku-keinu batez erakutsi zidan apaletan eta iragarkietan eskuragarri agertzen zen eskaintza. Izugarria. Hainbertze izen, hainbertze gustu, jatorri, apaingarri, kolore eta ontzi diferente! Kafe luzea, edo motza, edo epel eskatzearekin ere ez genuen deus egiten. Zer eskatu ez nekiela geratu nintzen. Nostalgia-rekin oroitu nintzen herriko tabernaz.

Gure garai honek, antza, norberaren gusturako kafea eskatzen du. Horrela erraten ari dira katalan aunitz. Gehiengoa edo ez, ikusiko da. Baina ozen aldarrikatzen ari dira Madriletik eskaintzen ari zaien kafea, urrezta-

tua eta garratza, ez dela haien gustukoa. Helduak direla, eta denboraren poderioz beuren gustua garatu dutela. Ez hobea ez txarragoa, baina beurena. Ordezkaezina. Trantsizio garaian, «autonomien estatua» delakoa muntatzen hasi zelarik, guztiontzako kafea prestatu zuten Madrileko agintariekin, bai kafea nahi zutenentzako bai nahi ez zutenentzako, huraxe euskaldunon eta katalanen erreibindikazioak neutralizatzeko era egokiena zelakoan. Behetik berdinu eta kitto. Baina kafezale ona denari ezin zaio edonola engainatu. Azkenean, ordaintzen duenak eskubidea ere badu bere gustuko kafea eskatzeko, eta batez ere kafetegitegi zerbitzarien partetik (edota bertze bezero batzuen partetik) irainduta ez izateko eskubidea dauka, are gehiago bezero aunitzen kafea ordaintzen ari denean.

Eta gu? Ez omen dugu argi zein kafe mota nahi dugun.

**«Baina ozen aldarrikatzen ari dira Madriletik eskaintzen ari zaien kafea, urrezkatua eta garratza, ez dela haien gustukoa. Helduak direla, eta denboraren poderioz beuren gustua garatu dutela. Ez hobea ez txarragoa, baina beurena. Ordezkaezina.»**

## Irakurleak mintzo

## Agurraren edertasuna

Itzulpena: Xanti BEGIRISTAIN  
MADOTZ (Auritz)

Istorio batek dio, Norvegi- an, gizon batek lan egiten zue- la instalazio batean, haragia paketatzen. Egun batean, be- re lan ordutegia bukatzen ari zenean, hozkailu handi haie- tako batera sartu zen, zerbait ikuskatzeko; Halako batean, atea segurtagailuarekin itxi zitzaion kolpe batez eta hozkai- lu barruan gelditu zen harra- patuta. Atea indar handiz jo zuen eta oihuka ere hasi zen, baina inork ez zion entzun. Lan- gile gehienak ordurako beren etxeetara joanak ziren, eta ia- ia ezinezkoa zen bera entzu- tea, atea oso lodia zelako.

Horiek horrela, eta hozkai- lu barruan bost bat ordu zera- matzanean, jada hilzorian, bat- batean atea ireki zen. Segur- tasun zaindaria zen; sartu eta salbatu zuen.

Gertaera haren ondoren, zaintzaileari galdetu zioten, ea zer dela eta bururatu ote zitza- ion irekitzea ate hura, lan hori bere ohiturakoa ez zenean. Langileak honela azaldu zuen:

- 35 urte daramatzat lane- an enpresa honetan; egun ba- koitzean ehunka langile sar- tzen dira fabrikara, baina be- ra da, goizetan eta arratsal- deetan agurtzen nauen baka- rra. Gainerako langileek trata- tzen naute, ni ikusezina ba- nintz bezala. Gaur ere "kaixo" esan dit sartzerakoan, baina arratsalde osoan ez dut en- tzun "bihar arte". Nik, langile horrengandik eguneroko espero

izaten dut "kaixo, egun on" eta "agur, bihar arte". Jakinda ora- indik ez zidala agurrik esana, pentsatu dut eraikineko leku- ren batean egon beharko zue- la; horregatik bilatu eta aurki- tu dut.

"Min ematen dizun pertso- nak, indartsu egiten zaitu. Kri- tika egiten dizunak, garrantzi- tsu bihurtzen zaitu. Eta, be- kaizkeria dizunak, baliotsu bilakatzen zaitu".

"Irribarre batekin esnatzen bazara, ez utzi inori irribarre hori ken diezazun".

Mila esker Berako  
IX. Mendi Egunean  
parte hartu zuteneiTxaro ZUBIETA (Xabier Zubieta,  
Loro Pikabea eta Xabier Sarale-  
giren familien izenean)

Berriro ere eskerrak ema- teko beharrean gaude. Eske- rrik asko IX. Mendi egunean modu batera edo bertzera par- te hartu zenuten guztiei (anto- laketan, mendian, ikusten, las- terka...), urtea joan eta urtea etorri egun horretan gurekin egon zareten guztiei.

Bihotz bihotzez, milesker!



## Bota bertsoa

Eneko FERNANDEZ (Lesaka) • Doinua: Itxaso hori dago zatarra  
Iruñeko Udalaren Bertsopaper lehiaketan 2. saria (Denera 42 bertso)

## Maravillas, Larragako loretxoa

1936ko abuztuak 15, 02:00, Larraga

- |   |   |
|---|---|
| <p>1.) Denak errudun, dena pekatu talde, alderdi, zein sindikatu Larraga aldean fanatismoak laister hartu du ostatu! (bis)<br/>Herritarrak umiliatu,<br/>atxilotuak kolpatu<br/>ta makina bat akatu.<br/>Jada berrogei dira berriro ez direnak etxeratu!<br/>Ta okerrena da sorgin ehiza oraindik ez dela bukatu! (bis)</p> <p>3.) Amets ez tigan dihoa gaba, Aita, ama ta hiru alaba.<br/>Atea ostikoz apurtu dute,<br/>ez baimen ta ez aldaba! (bis)<br/>Gau parteko lurrikara,<br/>guttiespen begirada,<br/>terrorezko hotzikara.<br/>"Vicente, jantzi, gurekin zatoz,<br/>Legea hemen gu gara"<br/>Nola erantzun, legea beti armatutakoa bada? (bis)</p> <p>5.) Udaletxeak, kuarter tankera tortura gela ta hiru ziega.<br/>Aita sotora eraman dute,<br/>Maravillas goi aldera (bis)<br/>Han da infernua bera!<br/>Gona, kuleroak... behera,<br/>inozentziak batera.<br/>Nahiz ta han dauden gizon guztiak joan zaizkion gainera,<br/>gorputza hautsita izanagatik bihotza dauka minbera. (bis)</p> | <p>2.) Nahiz epe motza den hilabete etxeak hustu, hil kutxak bete ta zantzu beltzek dioten gisan, okerrena etortzeke. (bis)<br/>PSOE edo UGT<br/>EAJ ta CNT<br/>Heriotz zigorrak merke!<br/>Denok ideia bera: "hurrena neroni izan naiteke"<br/>Salataria pareko etxean zelatan egon liteke. (bis)</p> <p>4.) Salaketa da anonimoa, izuikara, desanimoa, paseatzea bihurtu baita hilketen sinonimoa (bis)<br/>Bihotzaren erritmoa,<br/>alabaren destinoa,<br/>ze erabaki irmoa!<br/>"Aita zuekin joaten bada,<br/>ni ere zuekin noa"<br/>Ez daki atzapar zorrozduekin datorrela faxismoa. (bis)</p> <p>6.) Begi gorri ta azal zurbilak, alkohol kiratsdun arnas hurbilak Odol desiraz gidaturiko mendekuaren kuadrilak! (bis)<br/>Batzuk herriko mutilak,<br/>bertzeak Guardia Zibilak,<br/>pistolak eta fusilak<br/>Gauetz bizirik hartu zituzten ta arekan utzi hilak,<br/>baina hildako batzuentzako ixilik daude ezkilak. (bis)</p> |
|---|---|

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)  
Posta: **Koskontako bidea, 07-1 31770 LESAKA**  
Tel.: **(0034) 948635458** Faxa: **(0034) 948635457**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



**Prentsatik bildutakoak**



«22-6 galtzeak 21 tantorekin geratzeak baino min askoz gehiago ematen dit. Alde handiarekin garaitu bazaituzte minduta zoaz etxera baina gutxienez kora iritsi ez bazara amorratio puntua ere izaten duzu barruan (...) Zortea ere behar izaten da eta orain artean ez dugu askorik izan. Baina hau ez da bukatu eta gure onena eman behar dugu».

**Abel BARRIOLA**  
Leitzako pilotaria  
D.NOTICIAS • 2016.01.14

«Ez diogu geure buruari mugarik jarri nahi. Azken txapelketan dominen lehian egon gara sartuta, eta oraingoan ere hor egon nahi dugu. (...) Konfiantza handia dugu geure buruarengan. Prestaketa oso ona egin dugu. Lagunartekoetan emaitza oso onak lortu ditugu, eta jokoa ere oso serioa izan da. Pozik gaude egin dugun lanarekin».

**Niko MINDEGIA**  
Doneztebeko jokalaria  
BERRIA 2016.01.15

**11 galdera labur**

**Nor da Xumar Bakero?**

Galdera zail xamarra... Goizueta-ko 24 urteko mutil txintxo txintxo bat.

**Zein afizio dituzu?**

Ehizatzea, mendira joatea, lagunekin gelditzea, tarteka juerga pixkot...

**Zer dute berezia Goizuetako inauterietan?**

Ezaugarri bereziena astearte arratsaldean egiten den Zagi Dantza da. Goizuetan egiten den dantza tipikoa da eta nik uste hemen bakarrik egiten dela inauteritan.

**Eguneko edo gaueko parranda?**

Biak. Egunez hasi eta gauez bukatzea hobereena!

**Parrandarako abesti bat?**

Kojon Prieto y los Hualotesen edozein.

**Inauterietako menu idealena?**

Lagun artean jaten den edozein menu ona da.

**Festa ondorea pasatzeko sekretua?**

Gaupasa egin eta ongi gosalduta ohean sartuz gero, nik uste ez dela ondorio handirik izaten.

**Zertaz ez zinateke sekula moztortuko?**

Nik uste karnabaletan disfraz guztiak onak direla.

**“Zagiz” jantzita gehiago ligatzen al da?**

Zagiz jantzeak ligatzen laguntzen dizu, aurpegia beltzez margotzen delako. Eta aurpegia tapatzeak guri lagundu egiten digu, kar, kar, kar!

**Muxuak eman bai... baina jasotzen al dituzu?**

Ez, ez... muxuak eman bai, baina gehienez ere zaplaztekoen bat bueltan. Muxurik inork ez du ematen bueltan.

**Goizuetako txorikorik politena?**

Mendira igo ezkeror hemen edozein toki polita da.



**Xumar BAKERO OLAIZOLA → Goizuetako zahagia**

**sarobe**  
gozotegia okindegia  
pº de eztegara 25 bajo  
31780 bera (navarra) 1.948 63 08 99  
www.sarobe.net

**MARITX**  
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta  
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrikoak

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 · BERA

**ERREKALDE**  
PLATER KONBINATUAK OSTATUA  
PINTXOAK  
BOKATUK  
TFNoA: 948 630 259 BERA

**okaNe**  
HARATEGIA / URDAITEGIA  
Jose Luis & coro  
Tfno/Fax: 948 630 018 Kanttonberri 12 · BERA

**BRANDONEA, s.l.**  
BILTEGIA 948 630 102  
FAUSTINO 647 810 152  
Bidasoa, 76 - atea 21-22  
31780 BERA

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
sagardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TIF: 948 625 474

**KSAT**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimabako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satellite bidezko interneta

# BORTZIRIAK

GIZARTEA → 2008AN SORTU ZEN TALDEA LAGUNTZEKO

## Bolondresen lana bultzatzeko 3.500 euro jaso ditu Elkarrizan-ek

La Caixaren  
Gizarte  
Ekintzaren  
eskutik

### TTIPI-TTAPA

La Caixaren Gizarte Ekintzaren eskutik 3.500 euroko laguntza jaso du Elkarrizan bolondres taldeak, Bortziritan gauzatzen dituen boluntario ekintzak indartzeko. Elkarrizan 2008. urtean sortu zen, krisiaren hasieran, eta bortz herrietan egiten du lan. Javier Almandoz eta Juan Miguel Eraso, Bera eta Lesakako CaixaBank bulegoetako zuzendariak eman diote laguntza Alfredo Obeso, Elkarrizan Bolondres Taldeko ordezkariari. Jokin Apezetxea, Bortzi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Apezetxea, Almandoz, Obeso eta Eraso, dirulaguntza emateko ekitaldian.

rietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko teknikaria ere ekitaldian izan zen.

Elkarrizan Bolondres Taldeak bortz herrietako boluntarioak biltzen ditu eta gizarte bazterketa arriskua duten pertsonak laguntzen ditu,

gehien bat. Bere zerbitzuen artean, adinekoei eta eriei laguntza eskaintzen die, ospitale eta zahar etxeetan; eta aisialdirako ekintzak egin dituzte ezintasunen bat duten pertsonekin, helduen alfabetizazio lanak eta adin tti-

kioei eskola laguntza eskaintzen diete. Bortziritako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen laguntzarekin, Bera, Lesaka, Etxalar, Igantzi eta Arantzako 8.500 bizilagun inguru artatzen ditu.

### HURBILEKO GIZARTE EKINTZA

Elkarrizanek jaso duen aportazioa Caixa-Banken hurbiltasuneko Gizarte Ekintzaren baitan dago. 2015ean 1.536 milioi euroko aurrekontua izan zuten horretarako eta 428 toki ekimen bultzatu zituen, urtebete lehenago baino %40 gehiago. Nafarroako iparraldean 55 gizarte egitasmo bultzatu dituzte 2015ean, 121.000 euro baino gehiagoko inbertsioarekin.

### KIROLA

Ehun pilotari hasiak dira 15. eskuz banakakoan

### TTIPI-TTAPA

Bortziritako eskuz banakako hamabostgarren pilota txapelketa hasi zen. Hain zuzen, Bortziriako pilota elkarteak zortzi kategoriatan banatu ditu 100 pilotariak eta Bortziritakoak ez ezik, Oiartzun, Iparralde, Irun eta Baztan aldekoak ere arituko dira lau terdiaren barrenean.

Tikiak A, Tikiak B eta Umeak kategorioak ligaxka moduan ariko dira; Kimuak, Haurrak, kadete, gazteak eta 22 urtez behekoak kanporaketak izanen dituzte. Finalak martxoan jokatuko intentzioa dute Lesakan, baina oraindik ez dago data zehatzik.

## ITSAS-BIDAletan

benetako adituak izateak aitzinetik joateko aukera ematen digu.

B the travel branden itsas-bidaletan adituak gara. Horregatik eskaintza bereziak ditugu zuretzat. Zuk eta zure B geneak gure ibilbide eskusiboak ezagutzea eta 2016ko otsailaren 17a baino lehen egiten diren erreserbatan promozioak eskuratu ditzakezue.

- IBILBIDE ESKUSIBOAK**
- HEGALDIK DOAN**  
Fiordoak, Baltikoak eta Mediterraneoak
- HOTELEKO GAU BAT GEHIAGO DOAN** Venezian
- GUZTIA BARNE ERREGIMENA DOAN**
- B the travel brand aholkulari
- PERTSONALA ONTZI BARNEAN**

eta gainera **PROMOZIOARIK** onenekin

**300€ OPARI**  
(onuzen gure komodoarekin)

Egizu erreserba 50€tan. Eta prezioa jaitsi ezker berdinduko digu.

**HAURRAK DOAN** 3. ETA 4. laguntzeritzako **DESKONTU** garrantzitsuak.

**INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:**  
Eztegara, 22 (Frontoia eta Merkaopariren ondoan)  
BERA  
948 631 388 // 600 76 72 22

**LANA**

Zalaingo lantegian berriz ere mobilizazioak

**TTIPI-TTAPA**

Eguberrietako aparteko ordain sariaren %75aren eta Errege eguneko ordain-sariaren %100aren errententzia salatzen du Condesa taldeko Zalain Transformados lantegiko langileen batzordeak. Hori dela eta mobilizazioekin hasi dira eta astelehen honetan, lau orduko lan uzteak egitekoak zituzten txanda guztietan, bide judizialek soldaten ordaintzea eskatzen duten bitartean. Batzarrak ere egitekoak zituzten, soldata kobratu gabe segitzen badute zein neurri hartuko dituzten eztabaidatu eta erabakitzeko.

Langileek aipatu dutenez, lantegiak ia bi urte daramatza egoera prekarioan, taldearen arazo finantzarioak direla eta. Langileen soldaten ordaingabetze eta atzerapenez gain, «jaki-na da zorrak Zalainentzako lan egiten duten guztiengana iristen direla: azpi-kontratak, zerbitzuak, hornitzaileak...». Langile batzordearen iritzi-z, «hau dena estrategia baten barne bil-tzen da eta ez da insol-bentzia baten ondorioa, are eta guttiago tartean ArcelorMittal eta Banku-en kontsorzioa daude-la ikusita».

**GIZARTEA** → URTARRILAREN 14AN, URTEKO LEHEN BATZARREAN

# TTIP hitzarmena aplikatzearen kontrako mozioa onartu du Udalak

Ahobatez hartu zuten erabakia

**TTIPI-TTAPA**

Ipar Atlantikoko Merkataritza Inbertsioaren hitzarmena (TTIP, ingelesez) aplikatzearen kontrako udal aitortpena onartu zuen Herriko Etxeak ilbeltzaren 14ko urteko lehen udal batzarraren. Berako udalerrria, udalerrri intsumisioa eta TTIPen kontrakoa dela aitortzeaz gain, oinarritzko zerbitzu publikoak elkartasunerako eta gizarte birbanaketarako direla defendatu dute eta TTIP eta TISAren negoziazioa galaraztea eskatu diote Ekonomia Ministerioari.



ARGAZKIAK: A. AROTZENA

## Mendi Eguna arrakastatsua aurten ere

Kasik 300 lagunek parte hartu zuten urtarrilaren 9an Mendi Egunaren bederatzigarren edizioan antolatutako ekitaldi ezberdinetan. Goizean eskalada tailerlean aritu ziren ttikienak eta 57 bikotek parte hartu zuten Santa Barbarako Igoeran.

**FLASH**

### Toki Onako ikasbidaiaren zozketa

Toki Ona Institutuko DBHko 4. mailako ikasleek prestatu duten ikasbidaiarako dirua lortzeko asmoarekin saskia zozketatu dute. 1.039a da zenbaki sariduna eta horren jabeak Toki Ona institutura joan beharko du saria jasotzera.

### Kiroldegian eskaintzak

Otsailaren 14ra arte Toki Ona kiroldegian abon-tzen direnentzat beherapenak eskaini dituzte. Lehenengo 10 abonatuentzat, gainera, TRX aktibitate-a doan izanen da.

### Errandonea eta Martinez txapeldun

Elgoibarko senior mailako pilota txapelketa irabazi dute Ander Errandonea eta Andoni Martinezek. Ilbeltzaren 15eko finalean 22-17 irabazi zieten Salaberria eta Murgiondori.



ARGAZKIA: NAFARROKO BERTSOZALE ELKARTEA

## 'Larungo Antenak' lanean

Bardoak txapelketari ekin zion joan den ortziraletan herriko bertsolari koadrilak ere, Katakun egindako saioan. *Larungo antenak* taldeak bigarren saioa izanen du igande honetan Iruñeko Zaldiko Maldiko elkartean *Mirristi Drimtim* taldearekin.

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea  
jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

**BAR Botxo OSTATUA**  
Zalain · BERA · 948 630 052

# LESAKA

GIZARTEA → ABENDUAREN 30EKO BATZARREAN

## 2.584.740 euroko aurrekontua onartu du Udalak

Geroa Baik alde bozkatu zuen eta EHBilduk kontra

### Aitor AROTZENA

2.584.740 euroko aurrekontua onartu du Udalak, abenduaren 30eko batzarrean Geroa Bairen aldeko boztuekin eta EHBilduren kontrakoekin. Horretaz gain, Andra Mari Zahar Etxeak 707.000 euroko aurrekontua izanen du.

Inbertsioen atala 300.100 eurokoa izanen da, gehiena lan tikiak egiteko. Honela zuhaitz landatze eta baso-lanetarako 64.000 euro erabiliko dira, Lesaka-Bera ur hornidura lanetarako 50.000 euro, Irain eskolako galdara bat aldatzeko 44.000 euro, bide publikoen azpiegituretarako 40.000 euro eta baserri bideetako egokitzapenerako 28.000 euro.

Aipatu bezala, EHBilduk kontrako boza eman zuen. Oposizioa ez dator bat Geroa Baik egindako aldaketa batzuekin. Honela, liberatutako bi zinegotzien soldatetan %20ko igoera eta zinegotzien dietetan %33koa izanen direla aipatu du eta bidaia gastuetan %200koa. Aldi berean, biomasa labeen 25.000 euro gastatuko direla azpimarratu du (%70eko igoera), herriko egurra erabili ordez enpresa

bati erosiko zaiolako. Aldiz, Andra Mari Zahar Etxeari udalak egiten dion ekarpena 10.000 eurotan murriztuko da; tasak ordaintzen laguntzeko dirulaguntzetan eta egoera larrian egon daitezkeenei dirulaguntzetan 6.000na euro guttiago erabiliko dira eta 2-3 urteko umeen gelarako dirulaguntza ere 7.000 eurotan murriztuko da. Zuhaitz landaketa eta basoko lanetarako ere iaz baino 67.189 euro guttiago (%51,22) inbertituko direla dio EHBilduk.

Alkateak zifra hauei erantzun die. 2011n Bilduk udal hauteskundeak irabazi eta lehenengo plenoan alkatearen soldata 19.000 eurotik 30.500 eurora igo zutela aipatu du eta 2016rako 30.800 euroko aurrekontua dagoela. Landaketa eta basoko lanetan, azken lau urteetan diru-kopuru berdina inbertitzen dela eta Zahar Etxeari dagokionez, «errealitatearekin lotuagoa» dagoen aurrekontua aurkeztu dutela ere aipatu du. Beharrean dauden familiei laguntzeko diru-atalari dagokionez, aitzineko legealdian ez dela euro bako bat ere erabili jakinarazi du alkateak, «eta guk ez dugu fikziozko kopururik jartzen».

Biomasari dagokionez, igoera «2015ean Bilduk gaizki kalkulatu-takoaren egokitzapena» dela dio alkateak eta enpresa berari erosten



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

### Herriko trikitixa irakasleak omendu dituzte

Arrakasta handia izan zuen ilbeltzaren 16an Nafarroako Trikitixa Elkarteak eta Lesakako trikitixa taldeak bigarren aldiz antolatutako Nafarroako Trikiti jaialdiak. Harriondoa Kultur Etxea jendez lepo bete zen, eta zazpi bikoteren emanaldiaren ondotik, omenaldia eskaini zitzaizen herrian trikitixa irakasle izan diren Marisol Otxoteko, Laura Apeztegia eta Jone eta Estitxu Elgorriaga ahizpei. Ondotik, Irubiden egin zuten afarian kasik ehun lagun bildu ziren eta trikitia eta panderoa joz ibili omen ziren goizaldeko ordu tikiak arte.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

### San Anton Eguna jendetsua izan da aurten ere

Neguko eguraldi ederra probestuz, jendetza bildu zen Endara auzoan San Anton eguna ospatzera. Baselizan mezak izan ziren orduero eta erromeri giroa Ola-Berri jatetxeko atarian. Bortzirietatik ez ezik, Gipuzkoa aldetik ere jende aunitz elkartu zen, oinez, bizikletaz, zaldiz, nahiz autoz joana. Arratsaldean herriko plazan segitu zuen besta giroak, Joselu Anaiak taldearekin dantzaz.

### FLASH

#### Elkartasun zozketa

Aritz Telletxea herritarrari egokitu zaio Elkartasun Zozketako saskia. San Anton egunean atera zuten 3.724 zenbaki sariduna.

#### Zakozarren bilera

Urtarrilaren 31n, igande arratsaldeko 3etan egingen da zakozarren bilera Arranon. Horretaz gain, inauterietako igandean zakozarren prestaketa lanetan laguntzeko deialdia ere egin dute.

zaiola. «Lesakako egurra erabiltzea ezinezko ametsa da, hezetasun handia duelako. Horretaz gain, zuhaitzak moztu, xehatzeko eta almatzenazeko langileak, tresneria eta biltegi egoia beharko lirateke eta ekonomikoagoa da Bildu agintean zegoenean ere lan egiten zuen enpresari erostea».

GIZARTEA → IZEN EMATEA OTSAILAREN 21A ARTE

# Sagardotegira irteera antolatu dute aurten ere

Martxoaren 5ean izanen da Hernaniko Elorrabi sagardotegira

## Irune ELIZAGOIEN

Urtero bezala, sagardotegira irteera antolatu dute Etxalarko gazteek. Martxoaren 5ean joanen dira Hernaniko Elorrabi sagardotegira. Eguerdiko 13:30ean abiatuko dira autobusean herri sarrerako

aparkalekutik eta goizeko 04:00etan izanen da bueltatzeko ordua. Herriko ostatuan eta Elutsan apuntatzen ahal da otsailaren 21a arte, izena ematerakoan 20 euro ordainduz.

## Bidaziren aurkezpena

Urtarrilaren 28an arratsaldeko 6:30ean Bidazi elkartearen aurkezpena egingen da Kultur etxean. Zure elikadurak arduratzen bazai-

tu, Bidazi ([www.bidazi.org](http://www.bidazi.org)) izan daiteke zure erantzuna.

## Badatoz inauteriak

Otsailaren 4ean Ortzegun gizenarekin hasi eta otsailaren 9a arte izanen dira inauteriak. Urtero bezala igandean kinto bazkariak, astelehenean baserriz baserri eskea eta asteartean karrozen desfilea izanen dira. Egitarau guztia erdiko orrietan dago ikusgai.



ARGAZKIA: ARANTXA DANBORIENA

## Xaboa egiteko ikastaroa

Urtarrilaren 16an eta 23an, Monika Agirrerekin, Xaboa egiteko ikastaroa hasi zen. Urtarrilaren 30ean eta otsailaren 6an, 11.00etatik 12.30era, herriko pilotalekuan (merkatuarekin batera), irakaslerik gabe, denak elkarrekin taldean xagoia egiten praktikatzeko aukera izanen da. Ikastaroa dohan da, Etxalarko Kultur Ekimenaren eskutik.

**IRU BIDE**  
Erretegia · Asador

Biurrana, 3. Lesaka  
Tel: 948 637 127

- Lentzeria  
- Bainujantziak  
- Mertzzeria  
- Jantzi tipikoak  
- Peñen blusak

**kattagorria**  
lentzeria mertzzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka  
T. 948 627 514

**JARONE-COXOTEGIA**

948 630 786  
Altzate, 21 · BERA



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Isabel Elizalde Nafarroako Gobernuako kontseilaria, Gipuzkoako Diputazioako eta proiektua bultzatzen duten bertze erakundeetako ordezkariekin.

## NAFARROAK ETA GIPUZKOAK

### Bidasoa eta Leitzaran ibaiak hobetzeko elkarlana egingen dute

## TTIPI-TTAPA

Life + Irekibai Europako proiektua elkarlanean garatuko dute Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoako Diputazioak, Bidasoa eta Leitzaran ibaiak eta beraien ibai-adarren habitat eta espezieen kontserbazio egoera hobetzeko helburuarekin. Horretarako ibaibideetan dauden oztopoak kendu edo murriztuko dituzte, espezie inbasoreak kontrolatu, habitat ezberdinak berreskuratu eta ekosistema eta espezieen segimendurako ekintzak gauzatu dituzte. Herriarrak sentibilizatzeko ekintzekin osatuko da proiektua.

Programa 2020. urtera arte egingen da eta 2.999.372 euroko aurrekontua dauke. Europar Batasunak %60a finantzatuko du Life + programaren bidez (1.788-624 euro) eta gaineko %40a Nafarroa (617.621 euro) eta Euskal Autonomia Elkargoaren artean (582.127 euro) ordainduko dute. Isabel Elizalde kontseilariak bi lurraldeen arteko elkarlanaren garrantzia azpimarratu du, «muga administratiboetaz ulertzen ez duten ibaiak eta balio handiko espezieak konpartitzen baititugu».

## OZTOPOAK DIRA IBAIEN ARAZO NAGUSIAK

Aurreikusita dauden ekintzen artean, Bidasoa ibaiaren arroaren permeabilizazioa eta arrain espezieen mugimenduaren hobetzea bilatuko da, horretarako Bera, Endarlatsa eta Iturengo (Ezkurra errekan) presa ttikietan eta Txaruta erreka bertzeko bi oztopo ttikietan lan eginez. Soluziorik onena bilatzeko, tokiko agenteekin partehartze prozesu bat irekiko da.

Txaruta eta Ezkurra erreka bazterrak eta Baztan eta Bidasoa ibai bazterrak lehengoratzeko. Sei zati aukeratu dira, espezie exotikoak ezabatuz, hormak eta bazterrak landatzeko eta erosioa kontrolatzeko, bertzeak bertze.

Bisoi amerikarra kontrolatzeko ekintzak ere egingen dira. Izan ere, espezie inbasore honek desagertze arriskuan dagoen Europako bisoiaren egoera kritikoa larritu bertzerik ez du egingen.

# ARANTZA

GIZARTEA → SUA NAHITA EMANA IZAN ZELA AIPATU DU BULETINEAN

## Sua itzaltzeko lanetan lagundu zuten guztiak eskertu ditu Udalak

Joan den ortziralean, merendua izan zen udalaren eskutik

### Nerea ALTZURI

Joan den astean etxez-etxe banaturiko udal buletinean, hainbat gai jorratu ditu udalak. Urte berri on bat desiatzearekin batera, zenbait albiste irakur daitezke. Orri informatiboa, [www.arantza.eu](http://www.arantza.eu) web orrian osorik irakur daitezke.

### SUTEA

Urte akabailan izandako sutearen harira, sua nahita eman zutela eta hori herriarekiko izugarritzko errespetu falta dela adierazten du udalak. Lagundu duten guziei eskerri beroena eman die udalak itzaltzeko lanetan eman zuten laguntzarengatik.

Joan den ortziralean, elkartean bildu ziren eta parte hartu zutenentzat eta herritarrentzat merendua izan zen udalaren eskutik.

### BESTAK ETA ARANTZA ROCK

Hilabete batzuk pasatu arren, besten eta Arantza Rocken inguruan balorazio positiboa egin zen. Bestetako kontuak xehe xehe azaltzen dira udal informazioan.

Arantza Rocken inguruan parte hartu zuten guztiak ere eskertu ditu udalak.

### LIZTOR BELTZA

Udazkenean liztor beltzen kabiak agertu ziren. Udaleko talde bat horiek garbitzen ibili zen eta denetara 16 kabi desegin dituzte. Abisua eman dutenak eskertu dira udaletik.

### FRONTOIKO SARRERA

Frontoira sartzeko hainbat ibilgailuk ziztuzten arazoak zirela eta, sarrera ondoko eskailera maila bat kendu da sarbidea hobetzeko.

### MARRAK MARGOTU


Herriko hainbat tokitan marra zuri eta horiak margotu direnez, horiek errespetatzeko eskaera egin da udaletik.

### AHUNTZAK

Mendian barna ahuntz batzuk libre segitzen dutela eta, berriz ere oroitarazten da hori debekatuta dagoenez, ahuntzak menditik biltzeko. Hori gertatu ezan Udalak bere neurriak hartuko dituela ere gaineratzen da.

### ZABORRA

Oraindik ere Angule-roetan mota guzietako zaborrak agertzen dire-



ARGAZKIA: MIKEL ALZURI

Neguko lehenbiziko elurteak zuritu zituen mendiak ilbeltzaren erdialdean. Elur gose zena, gozo-gozo tzipatu zen tapaki xuriarekin.

nez, Biak Igantzi enpresa deituz, zaborrak eramaten dituela gogorazten da berriz ere. Zerbitzu hau doakoa da. (672 045 734)

### OBRAK

Edozein obra egin nahi baldin bada, ttiki-ena izanta ere, udalaren baimena eskatu behar dela ohartarazten du

udalak. Obraren neurria eta izaeraren arabera udalak erranen du zein dokumentazio gehiago ekarri.

### AGENDA

Hilabeteroko zine emanaldiak ere aitzinera segituko du. Udalak Donostia Kulturak kudeatzen duen Filmazpit programarekin hitzarmen bat egina du, eta honi esker, hilabetero film bat lortzeko aukera du udalak. Film hauek jatorrizko hizkuntzan izaten dira, euskarazko azpitoluekin. Hitzarmen honek ez du kosturik eragiten, doakoa da.

Hilabete honetako emanaldia igande honetan, ilbeltzaren 31n arratsaldeko 5etan Baskulan izanen da. *Le capital* filma ikusgai izanen da. Orain artekoari eutsiz, hurbiltzeko gonbidapena egin dute.



ARGAZKIA: NNNNN

### Inauteriak giro ederrean

Ohikoa denez, mozorro zuriek eskolara egindako bisitarekin eta ikasleek hauei jarritako bizkarrekoekin abiatu ziren inauteriak joan den ortzegunean, eguraldi eguzkitsua lagun zutela. Asteburu osoan giro bikaina paratu dute mozorro zuriek baserri auzoetan eta herrian eta trikixia jaialdia ere jendetsua izan zen.

**aterpe**  
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179  
ARANTZA  
[www.arantza.net](http://www.arantza.net)

GIZARTEA → ILBELTZAREN 16KO BATZARREAN AUKERATU ZUTEN

## Roberto Txoperena da Biltokiko lehendakari berria

Mus eta partxis txapelketa jokatzeko ari dira ortziral eta larunbatetan

### TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 16an egin zuen Igantziko Biltoki elkarteak urteko batzarrara. Bertze gaien artean, zuzendaritza batzordea berri behar zen aurten eta halaxe egin zuten. Honela, Roberto Txoperena da presidentea berria, Mikel Arburuaren ordez. Maite Zelaieta izanen da diruzaina eta Juan Ramon Reategi, Mikel Begino, Bea Lizardi eta Jose Mari Mitxelena bokalak. Urteko aurrekontua onartu eta gaur egun 235 bazkide inguru dituen elkarteak urtean eginen dituen ekintzen berri ere eman zuten.

Orain, mus eta partxis txapelketan murgilduak daude. Ortziralean aritzen dira musean eta larunbatetan partxisean. Otsail aka-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Urteroko ekintzak antolatzen segituko du Biltokik. Argazkian, joan den urteko mendi bizikleta ibilaldia.

bailan jokatu dituzte finalak. Horretaz gain, urteroko ohiko ekitaldiei segida eman nahi diete, hala nola mendi bizikleta jauntsiera eta zeharkaldia, Kultur Astea, bestetako afaria, frontenis txapelketa eta gisakoak.

### Inauteriak

Aitzineko alean aipatu zen ortziral eta larun-

### Ba al zenekien

Iriberean sortu eta Berrizaunera ezkondu zen Inaxi Etxeberria herritarrak ehun urte beteko dituela urtarrilaren 29an.

bat honetan ospatuko diren inauterien egitarauaren berri. Mozorro gazteen ohiko harat-honata ez ezik, nobedade modura aipatzekoa da Guraso Elkarteak lehen aldiz afaria antola-

tu duela larunbaterako. Horretaz gain, eskolako neska-mutikoek Ortzegun Gizen ospatuko dute otsailaren 4an eta antzerki emanaldiak izanen dituzte otsailaren 5ean.

### GIZARTEA

50.000 bisitari izan zituen iaz Irrisarri Land-ek

### TTIPI-TTAPA

Irrisarri Land Abentura parkea itxita egonen da otsailaren 12ra bitarte. Aldi berean, denboraldi berria prestatzen ari dira eta eskainiko dituzten berrikuntza interesgarrien berri eman zuten urtarrilaren 21ean, Madrilen ospatutako Fitur ferian. Bigarren denboraldian 50.000 lagun baino gehiagok bisitatu dute parkea, 100.000 lagun 2014ko apirilean ireki zenetik.

Otsailaren 12an abiatuko den denboraldi berriak berrikuntzak izanen ditu. Nafarroako Ostalaritza Elkarteak antolatuko duen Basoaren, Ehizaren, Onddo eta Zizen Jardunaldietan parte hartuko du eta Zaldia- ren Feria handia ere egingen dute.

Azpiegituren arloan, gaur egun erabilera anitzeko eraikin bat egiten ari dira, otordu handiak edo enpresa bilerak egiteko eta talde handiei aterpe emateko baliatuko dena.

**José I. Gonzalez Enguita**  
pinturak

barrukoak eta fatxadak

tel. 666 235 466

**LARRALDEA**  
eta  
**LINDDURRENBORDA**

Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea  
Txotx denboraldi irekiera urtarrilaren 23an  
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317  
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

**MARTIKO**

Martiko  
Pol Zalain, s/n.  
31780 Bera, Nafarroa  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036  
www.martiko.com

Ahatebicitan adituak eta arituak

**DENDA ORDUTEGIA:**  
astelehenetik ortziralerara  
08:00etatik 17:00etara

# SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → 150 EUROKO SARIA IRABAZLEAK

## Inauterietako argazki lehiaketa egingen dute

Otsailaren 2tik 19ra aurkez daitezke udaletxean

### Maidar PETRIRENA

Eguberriak akitu eta inauteriak gainean ditugu. Aurten inauteri orokorrak abudo diren honetan herri guztietan martxan jarriak dira inauteriak prestatzen. Sunbillan urtero Eguberriak akitu eta inauterietan pentsatzen hasten gara, batzuen batzuk karrozak egiten hasiak izaten dira Eguberrietan. Inauterietako karroza desfileak aurten 34. urteurrena beteko

du. Hiru egunez ospatuko dira inauteriak. Ortziraleko gosaritik hasi eta igandeko ulibeltzak elkarteko bazkaria eta ondorengo musika bitarte. Honetan herriko gazteek parte hartzen dute eta horretarako bai herri eta baserrietan eskean ibiltzen dira akordeoilarien laguntzarekin. Horretaz gain boletoak ere saltzen dituzte eta honen sariak zerria eta bildotsa izaten dira. Ohitura segituz urtero sari berdinak dira baina boletoen helburua inauteriak egiten dituzten gazteei laguntzea da, euro baten truke. Inauteria gastu handiko besta baita. Beraien otor-



ARGAZKIA: BIDAL IBARRA

### Ulibeltzak mendi taldekoak Saioan eskiatzen

Ulibeltzak Mendi taldeak bere irtereeekin segitzen du eta orain zonaldean elurra egin duela eta eta Saioa mendira eskiatzera joateko aprobetxatu dute.

duaz gain, akordeoilariak, ortziraleko frontoiko txokolata eta musika, larunbateko disko jaia, igandean karrozen desfilean garrantzirik gehien dituzten hiru karrozen gastuak (tortilla, opila-gaztarekin, gaztainak, salda, ardoa), gehi igandeko musika. Guzti hau inauteriak egiten dituzten gazteen gain joaten da eta beraiei laguntzeko izaten da igandean saltzen ibiltzen diren boletoen fun-

tsa. Aldez aurretik eskerrik asko bertaratzen zareten guztiei...

### ARGAZKI LEHIAKETA

Azken urteetan bezala, aurten ere inauterrien inguruko argazki lehiaketa deitu du Herriko Etxeak. Lanak otsai-

laren 2tik 19ra aurkez daitezke udal bulegoetan, 08:00etatik 15:00etara. Argazki guztiak udalaren webgunean erakutsiko dira eta sariduna ere bertan jakinaraziko du epaimahaiak. 150 euroko saria izanen du.



### Ba al zenekien

Abenduaren 17an herriko basurde ehiztari kua-drila ehizan grabatu zuela ETBk. Osotara lau basurde hil zituzten. Grabazioa urtarrilaren 9an eman zuten ETB-1 eta ETB-2ko berrietan.



ARGAZKIAK: MAIDAR PETRIRENA

### Eguberriak akitzeko Errege Kabalgata eta apezak eskainitako berendua

Urtero bezala (21. urtea da), Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeek bisita egiten digute. Bigarren urtez elizan meza entzun eta muxuak, goxokiak, argazkiak eta belen bizidunari bisita egin zaio. Ezkerrean, Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak beraien pajeeekin eta aurreko aldean herriko apezka eta Belen biziduneari parte hartu zuen familia (Mikel, Igone, Libe eta Beñat). Eguberriekin lotuta, Eguberrietan kantuan eta laguntzen aritu ziren haur eta koxkorrei berendu batera gonbidatu zien apezak urtarrilaren 18an Fonda Ostatuan.



**KULTURA** → ILBELTZAREN 29 ETA 31N

## Bardoak Ekimeneko saioak aste hondarrean Leitza eta Lesakan

### TTIPI-TTAPA

Asteburuan abiatu da Bardoak Ekimena eta eskualdean ere aditu dira lehen saioak, Donamarian eta Beran. Bigarren asteburu honetan ere bertsolariak aditzeko aukera izanen da, ilbeltzaren 29an Leitza eta ilbeltzaren 31n saio bikoitza Lesakan.

Ostiralean 22:00etan bertso-saioa eskainiko dute Atekabeltz gazetxean Leitza *Ateka-berts* (Ander Fuentes *Itturri*, Joanes Ilarregi eta Xabat Ilarregi) eta Barañaingo *Barañetak* taldeek. Migel Mari Elo-segi *Luze* izanen da aurkezlea.

Ilbeltzaren 31n, igandean, bi saio izanen dituzte Lesakan. 12:00etan Arranon eginen den bertso-saioan Lesakako *Unibertsolariak* (Josu Sanjurjo, Jose Juan Zubietza Etxabe, Jon Silveira eta Iban Garro) eta Altsasuko *Bota lasai* izanen dira aurrez aurre. Garazi Condek eta Ainara Etxabidek aurkeztuko dute saioa.

Igandean 15:30ean Arranon bertan eginen

den saioan Lesakako *Tantirubertso* (Eneko Fernandez, loar Tainta, Maddalen Lopez eta Iñigo Olaetxea) eta Leitza *Ateka-berts* ariko dira. Maialen Belarraizanen da aurkezlea.

### ETXETIK KANPO

Eskualdeko taldeek *etxetik kanpo* ere jokatu beharko dute asteburu honetan. Ortziral arratsaldean Iruñeko Zaldiko Maldikon ariko da *Iluminatiums* taldea (Amaia Elizagoiien, Iker Gorosterrazu eta Alazne Untxalo) *Obario Maldikoak* taldearekin. Leku berean, igande arratsaldeko bertso-merenduan ariko dira Berako *Larungo Antenak* (Julen Zelaieta, Patxi Castillo, Aitor Elexpuru eta Jokin Pinatxo) eta Iruñeko *Mirristi Drimtim*.

Otsaileko lehen larunbatean, Otsagabiko Gartzot elkartearen ariko dira *Unibertsolariak* eta *Xirristi Drimtim*.

Bigarren faseko saioak lehen fasea bukatuta jakinaraziko dira. Sei talde pasako dira eta sei saio eginen di-



UTZITAKO ARGAZKIA

Goitik beheiti, Ateka-berts, Unibertsolariak eta Tantirubertso taldeak.

tuzte otsailaren 19tik martxoaren 6ra bitarte.

Hortik hiru talde pasako dira martxoaren 19an

Etxarri-Aranatzen jokatu den finalera.

**BORDALARRIA**  
Carnes Sein Haragiak, S.L.  
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

**ola**  
SAGARDOTEGIA  
www.olasagardotegia.eus  
102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • Tfnoa 943 623 130

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa  
250 lagun eserita  
Klimatizatua  
Sagardotegiko menua  
**TXOTX GARAJA IREKIA**

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
SARE SOZIALEAN  
  
www.facebook.com/ttipi.eus

# DONEZTEBE

GIZARTEA → 50 FAMILIA BAINO GEHIAGOK

## Bosgarren auzo-konposta gunea martxan jarri du Udalak

Udaletxeko belagian dago eta erdigunean bizi diren biztanleei zuzendua da

### Marga ERDOZAIN

Dagoeneko bosgarren auzo-konposta martxan paratu du Udalak. Hainbat herritarren eskaerari erantzunez, erdiguneko beharrak asetzeko erabiliko da auzo-konposta hau. Dagoeneko Doneztebek konpostajerako bost gune ditu: Elizagibela, Zazpigurutz, Mourges, Rosa Seminario eta Merkatari karrikakoa (udaletxeko berdegunea). Udalak, Mankomunitateko Hondakinen Zerbitzuaren laguntzaz, konpostajea bultzatu nahi du, bai etxekoa, nola auzokoa. Dagoeneko 50 familia baino gehiago auzo-konpostaren erabiltzaileak bihurtu dira.

Auzo-konpostaz gain, herritarrek ere etxeko konposta egiteko aukera badutela gogorazi nahi du Udalak. Horretarako honako gomendio hau luzatu du Udalak: Mankomunitateetik pasatu bertan ontziak eskuratzuz eta argibideak jasoz.

### ZALANTZAK

Erabiltzaileek, nahi izanez gero, prozesua gainbegiratzeko laguntza tekniko eskatzen ahal dute, parte hartzaileen etxeetara bisitak



ARGAZKIA: MARGA ERDOZAIN

Udaletxeko belagian jarri dute bosgarren auzo-konposta. Erabiltzaileek laguntza tekniko eskatu dezakete Mankomunitatean.

ere egiten dira prozesuaren martxa aztertze-ko, eta, orokorrean, erabiltzaileek izaten ahal dituzten galderak eta zalantzak argitzen dira. Hau guztia kudeatzeko Mankomunitateak zabor teknikaria badu (Miren Mangado).

Argibide gehiago izateko edo konpostajai-

lua jasotzeko 948 45 17 46 telefonora deitu behar da. Horretaz gain, Malerrekako Mankomunitateko web orrian gai honen inguruko gida eta informazioa agertzen dira, bai gaztelaniaz, nola euskaraz.

Helbidea: <http://www.malerrekakomankomunitatea.com>.

### Kasino elkarteak

Avelino Mitxeo da Kasino elkarteak presidentea berria, ilbeltzaren 17ko batzarrean erabaki zenez. Lehendakari ordea Luismi Garcia; idazkaria Mari Jose Iribarren; idazkari ordea Patxi Aldabe eta bokaldea Xabier Bañares.

### INAUTERIAK

Otsailaren 4tik 7ra prestatu dituzten inauteriak ekitaldiz gainezka datoz

#### M. ERDOZAIN

Bertze urtetan bezala gazteak buru-belarri ari dira inauteriak prestatzen. Ortzegunean triki poteo eta Belarra kafetegian egiten duten afariarekin hasiera emanen diote. Ortziarean, taldeka banatuta, base-rietara joanen dira, eguerdian, itzulia eginda, Belarra kafetegian bazkaria egiten dute. Atsaldean, Herriko Ostatuan bai gazte, nola heldu eta

umeendako Modestok alaitutako emanaldia egiten da. Gauean, ohikoa den bezala, afariak koadrilaka ospatuko dira. Larunbatean, arratsaldeko 5etan eta Aparango industriagunetik organ desfilea abiatuko da. Herrian barna bi itzuli emanen dira. Doneztebarrak Merkatari Elkarteak eta Udalek sari bana emanen diete mozorrorik hoberenari eta karrozarik ederrenari.

### FLASH

#### Kiroldegiko gimnasia-erakundeak bonuak eskuragai

2016ko bonuak eskuratzeko aukera urtarilaren bukaera arte bada. Prezioetan berrikuntzak izan dira. Udaletxeko kiroldegia erabiltzeko aukera sartua zen orain arteko bonuan. Hemendik aitzinera gimnasia-erakundeak bakarrik egiten dira urteko txartelak, (udan igerilekura-ko bereiz aterako dira). Prezioari dagokionez, tarifa arruntaren prezioa 120 eurokoa da. Familia ugari-ko kideek %20ko beherakada dute. Interesatuak kiroldegiko bulegotik pasa behar dute.

#### Mankomunitateko kontsumitzaileen bulegoa

Otsailaren 5 eta 19an, ohikoa den bezala hilaletan bi ordezkatu, Nafarroako kontsumitzaileen Elkarteak zabalduko die bere bulegoa herritarrei, doaneko bitartekaritza eta laguntza juridikoa eskaintzeko. Etxebizitza, aseguruak, banku eta aurrezki kutxa, etxeko zerbitzuak, tailerrak eta zerbitzu teknikoak, merkataritza, administrazioa eta kontsumoari buruzko kezak eta galderak planteatzen ahal dira. Erabiltzaileek 948 451746 telefonora deitu behar dute ordua eskatzeko.

#### Zinema

Urtarrilaren 31n, igande arratsaldeko 4:30ean *Cómo entrenar a tu dragón* eta 6:30ean *Espías* filmak ikusgai, Erreka Guraso elkarteak eta DBHko 4. mailako ikasleek antolatua.

OSPAKIZUNAK → ILBELTZAREN 15ETIK 17RA

## Eguberriak akitu orduko inauteak ospatu dituzte

Igandera arte luzatu dira aurten ospakizunak

**Mattin LARRALDE**

Eguberriak akitu bezain abudo inauteriak izan dira Elgorriagan. Ilbeltzaren 15ean, ortzira leko afarian 50 bat lagun bildu ziren eta eus-

kal kantuak abestuz eta dantzatzu eman zuten afalondoa. Larunbateko gosariaren ondotik, herrian buelta eman zuten akordeoiarekin eskeia eginez. Bazkaldu ondotik, arratsaldean denak ibizenkotaz moztatu ziren eta batukada bat antolatu zuten. Danborrak, kazulak, latak zartagiak... denak balio izan zuen herria



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE  
Giro eta moztu besta ederra izan zen inauterietan.

erritmoz betetzeko. Ondoren afaria egin zuten eta akordioarekin musika izan zen ordu txikiak bitarte.

Aurten igandea ere jarri da inauteri eguna bezala. Gosaldun ondotik, bakoitzak bere moztuak jarri eta herrian ibili ziren. Sari banake-

ta eta zozketak ere izan ziren. Gero luntxa izan zen frontoian, aurreko egunetan bildutako puxkekin herri guztia- rentzat. Gazteek elkar- tean bazkaldu zuten eta arratsaldean mus txapel- keta herriko ostatuan. Bertze luntx batekin akautu ziren inauteriak.

### Tratu txarren tailerra

Hurrekin tratu txarren tailerra egin zen eta bi pankarta ere egin zituzten horren kontrako salaketa egiteko. Pankarta dotoreak Udal- letxean eta kultur etxean jarri zituzten.

**TALLERES SANTESTEBAN, Ongi etorri!**  
**Baztan - Bidasoako Renault Zerbitzu ofizial**  
bakarra gara orain. Zure kotxeak behar duen guztirako, etorri gurera.



RENAULT ocasión **alquiler**  
de vehículos comerciales

SERVICIO POSVENTA Renault

Renaultek gomendatzen du **elf**

renault.es/posventa

**TALLERES SANTESTEBAN, S.A.**

Leitzako Errepidea, 80. Tel. 948 450 282. 31740 DONEZTEBE

## ITUREN

OSPAKIZUNAK → DENA PREST DAGO

Inauteri gosez  
daude  
herritarrak

Eskolako neska-mutikoek ortziraLEAN eginen dute mozorro eta joaldunen kalejira

## Arkaitz MINDEGIA

Egun gutti barru gure herrietako ixkin guziak inauterietako bestan sarturik egonen dira. Prest dauzkagu jadanik bai mozorro, karroza eta nola ez joaldunaren jan-

tziak, larruak eta joareak. Egun batzuetan jende guziak barruan sarturik izanen ditu joarearen soinuak eta inauteriaren besta. Horren erakusle izanen dira eskolako irakasle eta ikasleak ere, ostiraLEAN, urtarrilaren 29an arratsaldean eginen baitute beraien mozorro eta joaldunen kalejira eta besta.

## Artisau eta lanbide azoka

Nahiz eta oraindik urtarrilaren azkena izan, otsaileko artisau eta lanbide azokaren aurrera-



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

## Herriko bertsolariak Bardoak txapelketan

Bi urtetik behin ospatzen da Bardoak Nafarroako taldekako bertsolari ekimena. Urtarrilaren 22an hasi zen eta martxoaren 19an Etxarri Aranatzan eginen den azken saiora arte hainbat eta hainbat taldek parte hartuko dute. Herriko bertsolariak diren Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazu ere hasiak dira, Amaia Elizagoien oronoztarrarekin batera kantuan, laguntzaile bikainekin batera: Iturengo Alix Gereka, Elizondoko Jaione Elizagoien eta Maialen Arregi, Arraiozko Oihana Retegi eta Zubietako Joxe Mari Mitxelena *Moha*. Taldearen izena *Iluminatiums* da. Donamariako Herriko ostatuan jokatu zuten urtarrilaren 22an lehen saioa; bigarrena, berriz, Iruñean dute urtarrilaren 29an, Obario Maldikoren aurka. Bi saioen ondotik, zortzi gazte hauen bonbilaren argi xumeak segi dezala saioz saio jendeari begiak eta belarriak argitzen eta ea Etxarriko finalean ere beraien argia presente den!!

pena eginen dugu. Otsailaren 14an izanen

da eta ohiko postuez gain, labe mugikorra

izanen da, bertze ekitaldiekin batera.

## MALERREKA

KIROLA → OTSAILAREN 7RA BITARTE

Josetxo Ezkurra Memorialean  
izen emateko epea zabalik

Martxoan 6an hasi eta Doneztebeko bestetan jokatuko dituzte finalak ekain hondarrean

## TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Erreka elkarteak hogeita seigarren aldiz antolatutako Josetxo Ezkurra Memorialeko pilota txapelketan izen emateko epea zabaldu du. Eskuz baina eta lau eta erdiaren barrenean jokatu den txapelketan, ben-

jamin, alebin, infantil, kadete, jubenil eta senior mailako pilotariak eman dezakete izena otsailaren 7a bitarte.

Horretarako, sailaee@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar da eta izen emateko orrian, telefono zenbaki bat eta posta

elektronikoko helbide bat adierazi beharko dira.

Txapelketa martxoaren 6an hasiko da eta ekainaren azken asteetan, Doneztebeko San Pedro bestetan jokatuko dituzte finalak. Maila guztietan txapelketa irekia izanen da eta kan-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Pilota txapelketaren bidez gogoratuko dute aurten ere Josetxo Ezkurra zena.

poraketa moduan jokatu da. Igande goizez jokatuko dira partidak.

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

## Kantu bazkari eta ahare apustuarekin osatu da aurten San Anton eguna

Izaskun Santestebanek etxeratu zuen saskia

### Fermin ETXEKOLONEA

San Anton egunak nobedadeak izan ditu aurten. Baselizako meza-ren ondotik, ahari apustua edo erakustaldia egin zen eguerdian. Doneztebeko Luis Martinek eta Zubietako Eneko Santestebanek bere ahariak atera zituzten.

Errandonean kantu zaharren bazkaria egin zuten. Juan Etxeberria eratsundarra aritu zen gidari eta 45 bat lagun bildu ziren. Txitxillo gazte-guneak orri-markatze-koarekin egindako zozketan Izaskun Santesteban suertatu zen sari-dun eta berak etxeratu zuen saskia. Arrats partean, estalpean dantzarako aukera izan zen.

### Inauteriak

Aurreko alean eman genuen inauterietako



egitarauaren berri. Egun hauetarako Patxiku Mitxelena eta Mari Joxe Loiarde arituko dira sukalde lanetan, estalpeko otorduetarako. Pare bat laguntzaile ere izanen dituzte, baina zein izanen diren ez dago erabat segurtatua hau idazterakoan.

### Metrobaserri

Baserriak markatze-ko seinaleak jartzeko asmoa du Udalak, Metrobaserri programaren baitan. Auzolanaren bi-



ARGAZKIA: JON MIKEL ARAGON

Errandoneko kantu bazkaria eta haurrak dantzan estalpean, San Anton egunean.

dez hasiak dira jartzen baserriak non dauden

zehazten duten seinale hauek.

## GIZARTEA

HEZKUNTZA → ESKUALDEAN, BAZTAN, DONEZTEBE, GOIZUETA ETA LEITZAKO UDALEK JASO DUTE

## Bertze herrietako ikasleak hartzen dituzten udalerrientzako laguntza

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 525.504 euroko bertze diru-laguntza bat emanen die eskola-kontzentrazio modura jotako ikastetxe publikoak dituzten 36 udalerriei, hau da, hurbileko bertze herrietako ikasleei arreta ematen

dietenei. Ttipi-Ttapak hartzen duen eskualdeari dagokionez, Baztango Udalak 5.290,79 euro jasoko ditu (33 ikasle), Doneztebeko Udalak 28.858,87 euro (180 ikasle), Goierrieko Udalak 2.725,56 euro (17 ikasle), Leitzako Udalak

961,96 euro (6 ikasle).

Laguntza berri horiek, joan den urteko martxoan ordaindutako 525.000 euroei gehitzen zaizkie, eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi ikasturtetako eskola-kontzentrazioen

3.380 ikasleen eskolatzetik sortutako gastuak konpentsatzen laguntzen dute.

### IKASLEKO 310,80 EURO

Udalerrri bakoitzari emandako zenbatekoa finkatzeko, Gobernuo Hezkuntza Departamentuak 310,80 euro-

ko modulu bat kalkulatu du eskolatutako kontzentrazioko ikasle bakoitzeko, Nafarroako Gobernuaren mendeko Bigarren Hezkuntzako institutuek sortutako gastuetan oinarrituz (berokuntza, elektrizitatea, garbiketa eta atezaintza).

# EZKURRA



NATURA → LEHEN ELURTEA

## Elurrarekin eta kantuz hasi da urte berria

Ezkurra, Eratsun eta Leitzako 49 lagunek Barrankan afalduz ekin zioten 2016ari

**Fernando ETXEBERRIA**

Ezkurra, Eratsun eta Leitzako 49 herritar Barranka ostatuko mahai-inguruan elkartu ziren urte berriari afari eder batekin ongi etorria emateko bertso eta kantu artean. Momentu berezia izan zen euskara menperatzen zuen turista katalan batek Bo-

ga boga abestia kantatu eta zuzendu zuenean. Turista ingelesek ere parte hartu zuten, bertsolarien gaitasun eta abileziarekin harrিতuta. Azkenean, biharamuraino luzatu zen festa.

Udazken bukaera eta negu hasiera ohi baino epelagoak joan dira, baina dagoeneko lehen elurrek ere zuritu dituzte herria eta mendi bazterrak.

### Txerri boda

Elur eta hotzaren etorrerarekin batera, urtero bezala Ezkurra eta Eratsungo bizilagunek txerri-hiltzea egin zuten urtarrilaren 18an Ba-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

### Urrezko Ezteiak

Ignacio Elizalde eta Tere Etxebarria senar-emazteek ezkontzako 50. urteurrena ospatu zuten urtarrilaren 5ean, 1966. urtean ezkondu baitziren egun horretan bertan. Bikotea Hendaian bizi da orain eta bertan 4 seme-alaba eta 5 biloba dauzkate. Ezkurra, Iruña, Orio eta Hendaia senideak elkartu ziren ospakizunean, 33 lagun denak baserritarrez jantziak. Ignacio Kosta Urdinean bazozain arituenez, familia 30 urte baino gehiagoz bizi izan zen bertan. Krisialdian, ordea, Hendaia joan ziren eta eraikuntzan lan egiten hasi zen. Meza 12:30ean ospatu zen Gabriel akordeoilariaren emanaldiarekin eta Cecilia eta Dionik zuzendutako kantuekin. Ondotik, Barranka ostatuan bazkaldu eta ohitura den moduan musika eta kantuekin eman zioten amaiera egunari.

rranka ostatuan. Leitzako Zestau abere-hiltzaila eta beste 10 boluntario izan ziren prestakuntza guztiaren arduradunak, 502 kiloko 3 abereek ahalik eta gutxi- en sufri zezaten.

Ondotik beti bezala, emakumeek odola jaso eta puskak prestatu zituzten hamaiketarako baita laguntzaile guztiek batera ospatutako bazkarirako ere. Festak afalondoan jarraitu zuen lagunarteko mus txapelketa azkarrekin.

ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA  
Zestau leitzarra lanean, zerri-hiltzean.



# URDAZUBI INAUTERIAK

Otsailak 5, 7, 8 eta 9



## OTSAILAK 5, ostirala

Bi herrietako haurrak eskolan mozorrotu eta **arratsaldean** herrira jeitsiko dira.



## OTSAILAK 7, igandea

**Goizean** gazteen **gosaria** izanena da Gauriñara elkartean **Segidan** mozorroak jauntzi eta Dantxarinearik barna, **bentaz-benta** abiatuko dira eskean ilundu arte. **21:30ean** Mozorroturik etortzen diren **haurrentzat sorpresa!** **21:30ean** **pin-txoak** eta **musika** denentzat, animatu mozorrotzera!



## OTSAILAK 8 eta 9, astelehena eta asteartea

**09:30** aldera **herriko haurrak** elkartu eta **etxez-etxe** eskean ariko dira eta bukatzean herrira jautsiko dira. Gazteak, berriz, **10:00etan** elkartuko dira Karretero ostatuan eta kafea ttanttarekin hartu ondotik, **baserriz-baserrri** ibiliko dira eskean trikitixa eta panderetarekin. **21:30ean** **pin-txoak** eta **musika** denentzat.



**ZUBIONDON**

OSTATUA  
AUTOZERBITZUA  
OROIGARRIAK

Ongi pasa inauteriak!  
(0034) 948 599 041  
**DANTXARINEA**

**MONTXO** **OSTATUA**  
**TABAKO-DENDA**

Ongi pasa inauteriak!



Plater konbinatuak | Ogitartekoak | Pintxoak | Menuak enkarguz

Egunero irekia 09:00etatik 02:30era - Dantxarinearik 2 km.tara

ANZAN-BORDA - URDAZUBI | 948 599 039

**SANTIAGO VILLARES S.L.**

Ongi pasa inauteriak!



LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN

SALMENTA ETA ESPORTAZIOA

LASTOA

LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777

T. (0034) 948 59 91 34

Fax. 948 59 91 56

info@santiagovillares.com

www.santiagovillares.com

**JOSENEA**  
ZONE AUTO

ONGI PASA  
INAUTERIAK

**MUGAIRE**  
ZONE AUTO



N-121-B errep. • Dantxarinea • 31712 URDAX • T.(0034) 948 59 92 36 • centreauto@josenea.es  
Iruña-Frantzia errep. N-121-A 48,5.km • 31720 OROÑOZ-MUGAIRE • T. 948 599090 • administracion@josenea.es

# ELIZONDOKO INAUTERIAK

Otsailak 4, 5 eta 6

**Mañonea Agentzia S.L.**

www.mainoneaagentzia.com  
 KONTABLE, ZERGA, LAN ETA JURIDIKO AHOLKULARITZA  
 asesoria@mainoneaagentzia.com

**GENERALI**  
 Aseguruak

MAÑONEA AGENTZIA - ELIZONDO - BAZTAN - NAFARROA

Telefonoak: 948 58 11 32 - 606 89 68 43 / Email: seguros@mainoneaagentzia.com



**hiru** ... betikoa baina ezberdina  
 Ongi pasa inauteak  
 Baztan Berri 7 B | ELIZONDO  
 T 948 581 219

ostatua

Kaxulak, plater konbinatuak, bokatak, pizzak, hamburgesak, ensaladak, fritoak...  
 Etorri eta dastatu gure berezitasunak!

BASTIDATIK ekarritako ARDOAK: Montebuena, Solagüen ardo beltz ondua eta Solagüen txuria  
 Infusioak zapore guztietakoak  
 Eskoziar eta Irlandar kafeak

**OTSAILAK 4, ortzeguna**  
**Oilar Dantza** edo **Orakunde** eguna ospatuko dute Elizondoko ikastetxeetako haurrek. Urtero bezala, karrikadantza, bazkari eta jostetak izanen dira goizean. **Arratsaldean, oilarren ordua** izanen da.



**OTSAILAK 6, larunbata**  
**Eguerdian mozerro eta orgen desfilea** egingen da herrian barna.



**OTSAILAK 5, ortzirala**  
**09:00** gazteak elkartu eta **puxka biltzeari** hasiera emanen diote.  
**16:00** haurren desfilea izanen da. Desfilearen **ondotik, txokolatea** eta **dantzaldia** antolatuta dituzte haurrendako.  
**22:00** Jantziloren erretzea plazan.



**ANTXITONEA**  
 Trinketea

24 logela bainuarekin · Aparkalekua  
 Aire girotua gela guztietan · Hari musikala eta TB  
 Gela berexia sukalde eta hotel zerbitzuarekin

**ONGI PASA INAUTERIAK!**

Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853  
 hostel@antxitonea.com • www.antxitonea.com

**šuteia-zaldain**  
 ongi pasa inauteriak !

**instalazioak**

IGOGAILUEN INSTALAZIOA  
 ELEBADOREAK  
 ETXE PARTIKULARRENDAKO  
 AROZTEGI METALIKOA  
 BALKOJETAKO TOLDOEN INSTALAZIOA

**LEHEN** **ORAIN**

Santiago, 71 | 31700 ELIZONDO  
 T. 948 580 166 | M. 619 424 999



Isabel GONZALEZ ARRIJURIA

## «Inauteri egunaz bezain bertze gozaten dugu prestatzeko prozesuaz, nahikoa barre egiten dugu!»

Eguberrien ondotik hartu zuten inauteriaz solasteko lehenbiziko kafea eta dagoeneko azken prestaketekin buru belarri dabilta Isabel eta lagunak «**aurten oso azkar dira eta denbora gutxiago izan dugu baina moldatzen gara. Ez ateratzea ez zaigu burutik pasa ere egiten**». 1983an mozorrotu ziren lehenbizikoz taldean eta eutsi diote ohiturari «**batzuetan hogeit lagun, bertzeetan zortzi... baina beti ibili gara saltsan, ikaragarri gustatzen zaigu eta. Herritik kanpo bizi direnak elkartzeko aitzakia ere bada**».

Egin zuten lehenbiziko mozorroa ongi gogoan du «**konejuz jantzi, danbor batzuk egin eta orkestra bat osatu genuen. Zuzendaria nintzen ni**». Orduko mozorroak eta egungoak alderatuta, orain guztia eskura dagoela uste du «**orain denetik topatu liteke, erosi eta oso erraza da mozorroa osatzea. Duela urte batzuk dena egin behar izaten zen mozorroa josi eta osagarriak ere hutsetik egin**». Hala, danborrak egiteko «**Colon xaboi kuboak erabili genituen. Forma borobila izaten zuten eta txukunduta danbor tankera hartzen zuten**».



Urte hauetan «**kaldereretz, afrikarrez, indioz, mexikarrez, pailazoz, estralurtarrez, telefono mugikorrez...**» mozorrotu izan dira eta gustukoena aukeratzeko eskatuta, «**Gorgoritzo jantzi ginenekoa**» aipatu du zalantzarik gabe. Umetako garaia gogora ekarri zituzten mozorro horrekin «**Gorgorito txotxongilo batzuk dira, San ferminetan izaten dute urtero emanaldia Conde Rodezno plazan eta gu haurrak ginenean Elizondora urtero etortzen ziren**». Txotxongiloez gain, antzoki bat ere eraiki zuten «**kortina eta guzti eta txotxongiloen istorioa irudikatu egin genuen. Sorgin gaiztoa, ume txintxo...**». Ongi pasa zuten ikusleek ere «**helduak garai bateko ikuskizuna gogoratuz eta hurrek sekula ikusia ez zuten emanaldia ikusiz ederki pasa zuten**».

Landutako mozorroak eramateaz gain, «**paperean sartzea**» ere beharrezkoa iruditzen zaie, inauterietan gozatu ahal izateko, «**parodia egitea gustatzen zaigu, lotsak etxean utzita. Mexikarrez jantzi ezker adibidez, etxera bueltatu artean, mexikarren antzera hizketan aritzen gara**».

Garai batean asteartean izaten zen inauteria eta larunbatera pasa zenetik, «**jendea biltzea errazagoa da**» bere ustez. Larunbateko kalejira antolatuta izanak ere «**bestari mesede**» egin diola dio, «**ohituz hartua dago, kale nagusitik plazaraino egiten da ibilbidea eta orain jendeak badaki ikuskizuna ziurtatuta dagoela**».

Atzera kontakteta hasi dute Elizondon, azken osagarriak lortu, mozorroa apaindu... eta galdetu arren, Isabelek ez du aurtengoaren pistarik eman.

Egun handia iristean mozorroen kalejiran argituko da beraz, isilpean gorde duten sekretua.



**ELBETEKO POSADA**

· Eguneko menua  
· Plater konbinatuak  
· Plater itikiak prezio berezian  
· Asteburuetan karta  
· Asteburuko menu berezia

Ongi pasa inauteririk!

**ELBETE** · Karrikaundi · T. 948 581 519

info@posadaelbete.com · www.posadaelbete.com

**onegin** Herbodietetika Ekodenda

Ongi pasa inauteririk!!

- **Nutrizionista: AMAIA MEOKI PLAZA**  
- Dieta pertsonalizatuak: gehiegizko pisuarendako, diabetikoendako, kolesterolarendako...
- **Bioinpedantzia bidez:** grasaren neurketa, giharraren neurketa, uraren errententzia...
- **Kolesterol eta glukosaren odol analisiak**
- **Biocuantum analisiak:** zirkulazioa, bitamina falta, digestioak...
- **Elikadura ekologikoa**

Jaime Urrutia, 26 Behea  
31700 ELIZONDO  
948 581 932 oneginelizondo@gmail.com

**AXULAR**

Fotokopiak, faxa, enkuadernazioak, plastifikazioak, aldizkariak, prentsa, tabakoa eta testu liburuak ekartzen dira enkarguz

ONGI PASA INAUTERIK!!

Santiago, 26 · ELIZONDO · T. 948 581 507

ostatua

**GOIZALDE**

MENUAK · KAXULAK · BOKATAK · PINTXOAK

948 581 334 | Jaime Urrutia, 8 | ELIZONDO

ONGI PASA INAUTERIK !!

**TXOKOTO**

MENUAK · KAXULAK · BOKATAK · PINTXOAK

948 580 349 | Braulio Iriarte 25 | ELIZONDO

## BERAKO INAUTERIAK

Urtarrilak 30 eta otsailak 3, 4, 7 eta 8



**ZELAIETA**  
tabakodenda  
egunkariak, aldizkariak...  
Iturlandeta • BERA • 948 631 246  
ONGI PASA INAUTERIAK



**HAUTIK!!!**  
Dortziruadi  
INPRENTA - KOPISTEGIA  
948 631 521  
material guztietan inprimatzen dugu  
Hamisetan / oparitzeke artikulua



**ERREKALDE**  
PLATER KOMBINATUAK OSTAGUA  
PINTXOAK  
BOKATAK  
ONGI PASA INAUTEAK!  
TFNOA: 948 630 259 BERA



**ARTIEDA ESTANKOA**  
Estanco Nº 3  
Cava de Puros  
Plaza Urnua 1, bajo (Aguera)  
31760 Bera  
Tel. 948 631 637  
Fax. 948 631 654  
estanco3@estanco3.e telefonica.net  
ongi pasa inauteriak!



**Jauriena**  
Instalazio elektrikoak  
608 777 926  
630 136 863  
948 631 217  
jaurienabera@gmail.com  
Instalazio elektrikoak · Mantenimendu industrial  
Exxtresnak · Antenak · Sukaldeko altzariak  
DIGITAL PLUS DIGITAL+  
ENERGIA ETA ARGIZTAPENAREN EFIZIENTZIA AZTERKETAK

## Belen ARRIBILLAGA GOIKOETXEA

«35 urte daramatzagu elkarrekin mozorrotzen eta ea beste hainbestez horrela segitzen dugun»

Irudimenak eta lagun giro ederrak bat eginda lortzen den emaitza Belenek mimoz gordetzen dituen argazkietan ageri da. «1977an hiru lagun mozorrotu ginen lehenbizikoz. Gogotu eta egin. Bi alarguez eta bestea señoritox jantzi ginen» eta geroztik ia urtero atera dira. Zortzi lagunek osatzen dute orain euren taldetoxa eta eguberriak pasa bezain laster hasten dira prestatzen «arratsaldeko zortziak aldera geratu, afari-merienda egin eta horrela joaten gara antolatzen. Bakoitzak bere ideia ematen du eta denen artean bat aukeratzen dugu». Hainbertze urteren ondok, mozorroz betea dute sabaia eta bakarren bat bereziki gogoan ote duen galde-tuta «ipotxex jantzi ginenekoa berezia» izan zela dio «dena guk josi genuen eta errematea Juantxo Larramendik eman zuen, lpotxen aurpegiak margotu zizkigun eta sabelean. Inauterietan ateratzen 25 urte bete genuenean errepikatu egin genuen mozorroa». Bitxikeria ere badute mozorro honi lotuta, «ipotxak ikusita, umeak sabelaren parean jarrita, sabelean marraztuta genuen aurpegira so-lasten ziguten».



Mozorroak egiteaz beraiek arduratzen dira gehienetan «hutsetik hasita. Bertzeetan berriz, etxeko arropa zaharrekin moldatzen gara». Hainbertze urtetan ohiturari eusteko sekretua ere argi du «batak besteari laguntzen diogu. Horregatik lagunei eskerrak emateko probestu nahiko nuke aukera».

Mozorroaz gain, gurdia ere prestatzen dute «35 urtetan denetatik izan dugu, karroa guk tiratuta, karroa animaliak tiratuta, baina azkeneko urteetan kuadrilako Gurutzek duen pickupa erabiltzen dugu. Gaiaren arabera apaintzen dugu». Senarren laguntza izaten dute apainketa hauek egiteko eta «txofer bezala ere atera izan dira. Gaur egun berriz, taldekide baten iloba izaten da gure txoferra».

Azken astetako afari-meriendeak ere eman dute fruitua eta aurtengoa ere prest dute. Sekretua da baina «bertzela ez zuen graziarik izanen». Misterioa argitu nahi duenak beraz badaki, astelehenean Berako karriketan izanen du erantzuna.



ongi pasa inauteriak!!!  
**Garbi ogi & coffee**  
KAFETEGIA - OKINDEGIA

Gosariak, merenduak, gofreak, krepak,  
txokolate beroa txurroekin, izozkiak, goxokiak...

Iturlandeta, 6 · BERA · 948 625 673

07:30-13:30 / 16:00-20:30  
Asteazken arratsaldetan itxita

ongi pasa inauteriak!!!

E D A R I A K



Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
T. 948 63 10 27 - F. 948 62 52 11  
tabernabera@gmail.com  
www.tabernaedariak.com



### URTARRILAK 30, larunbata

**19:00** Kaldereroak Illekuetatik Herriko etxeko plazara abiatuko dira eta ordu erdi lehenago prest egon beharko da. Ibilbidea: Illekueta-Altzate-Legia-Zahar etxea-Eztegara-Iturlandeta-Bidasoa karrika-San Esteban karrika-Herriko etxea izanen da. Euria eginen balu, ekitaldia Altzateko pilotalekuan eginen litzateke.



### OTSAILAK 3, asteazkena

**18:00** Inauterietako kontzertua kultur Etxean.

### OTSAILAK 4, ortzeguna

**15:45** Ortzegun gizen. Suhiltzaileen parketik Eztegara pilotalekura. **16:30** Biga Band Bum dantza dezagun Eztegara pilotalekuan.



### OTSAILAK 7, igandea

**10:00** etatik aitzinera herrian barna, Eztegara pilotalekutik hasita Inude eta Artzaiak. **18:00** Eztegara pilotalekutik Altzatera Inude eta Artzaiak.



### OTSAILAK 8, astelehena

**Goizean** zingar-arraultzea **19:00-20:00** Batukada Batuklang taldearekin Altzateko karrikan.

Itsasoa hurbilago!



ongi pasa inauteriak!!

948 630 981 • 620 828 757  
Itzea, 6 • BERA • NAFARROA



**BIZIKLETEN  
SALMENTA  
ETA  
KONPONKETA.**

Eta orain,  
**GIMNASTIKA  
ETA FITNESS  
MAKINAK,**  
bizikleta estalikoak  
lasterketako zintak  
...

Kanttonberri 1, BERA      **948 631 218**  
kateabera@telefonica.net

MASMO
ORBEA
MERIDA
SCOTT
BH

**INAUTERIETAN LASAI IBILTEKO  
GARRAIO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU  
ASTELEHEN EGUERDIAN**

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa  
t. 948 631 106 w. www.zalain.com

**BERAKOUDALA**

**berako udalak  
inauteri zorientsuak  
ora dizkizue!**



**TRANSPORTES IRIGOYEN**

ONGI PASTA INAUTERIAK

629 592 215 · Biurrana auzoa, 1 · LESAKA

**IZARRA  
OKINDEGIA**

ongi pasa inauteriak!

PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA  
TEL: 948 637 855**XAGU****LIBURUDENDA**

Tel. / Fax 948 638 232

Koskontako bidea, 7  
(osasun-zentroaren parean)  
31770 LESAKA

ongi pasa inauteriak!!

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAk
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

**SUKALDERAKO ALTZARIAK****ARMAIRU ENPOTRATUAK****KOLTZOIAK****BORTZIRI**  
UNSION ANIAIKErakusketa: Bereau Etxea | LESAKA | Nafarroa  
T. 948637266 | M. 607226891 | F. 948637511  
bortzirialtzari@telefonica.net**LESAKAKO INAUTERIAK**

Otsailak 3, 4, 6, 7, 8 eta 9

**OTSAILAK 3, asteazkena****Goizean** Irain Eskolan inauterietako jaialdia.**OTSAILAK 4, ortzeguna****Goizez** arraultze-arraultze. **Arratsaldean** ikastolan inauterietako jaialdia.**OTSAILAK 6, larunbata****Gauetz** afariak eta mozorroak.**OTSAILAK 7, igandea****Goiz-arratsaldez** Goitarrak baserriz-baserri eta arratsaldean herrian. **17:00ak** aldera Zakozaar ttikiak. **Ondoren** Zakozaar haundiak eta Mairuak. **18:00** dantzaldia plazan.**OTSAILAK 8, astelehena****Goiz-arratsaldez** Fraindar eta Goitarrak baserriz-baserri. **Goiz-eguerdian** Mozorro eta karrozak. **18:00** dantzaldia plazan.**OTSAILAK 9, asteartea****Goiz-arratsaldez** fraindarrak baserriz-baserri eta herrian.**JOISA****AROTEGIA  
MAKINA ERREMINTA  
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK**Barandak, balkoiak, atek,  
hesiak, forja artistikoa, ...**T./F. 948 638 150  
M. 646 774 117**

Otsango Ind. • 31770 LESAKA • talleresjoisa@hotmail.com

**www.talleresjoisa.com**

David URRA GARRO

## «Inauteriak beti gustatu izan zaizkit, sakratuak dira niretzat»

«Bolumen handiko panpina edo pertsonaia» bihurtzen da David Lesakako inauterietan. «Belarrez beteriko zakua» jarri eta «jendea izutzea» izaten da zako zaharren lana. Zako zahar giro hori haurra zenetik gustatu izan zaio eta «urtetik urtera gehiago betetzen» diola aitortu du. Nahiz eta «pare bat urtetan» kale egin, «gazte gaztetatik» hasi zen zako zaharrez jantzita ateratzen eta «gutxi gora behera, 24. urtea» izango da aurtengoa. Inauterietako «oroitzapen denak politak» dira Davidentzat. «Ikragarri alai» eta «hagitz animoso» bizi ditu festa egun hauek. «Inauteriak beti gustatu izan zaizkit, sakratuak dira niretzat».



Gehienbat zako zaharren eguna izaten da beretzat «egun handia». Gainera, herritarrez aparte «jende aunitz etortzen da kanpotik ere» ikustera. Zako zaharrez jantzita ez doazen herritarrek mairuz joaten dira egun honetan, «arropa guztia telaz josi eta tirak zintzilik eramaten dituen pertsonaia» da mairua. Batzuk «aurpegia estalita» eramaten dute eta «bertze batzuk ez».

Inauterietako «eguneko giroa aunitz» gustatzen zaio «herria transformatu egiten da, herri guztia jantzen da». Egunerokotasuneko ohitura eta rolak alde batera uzten dira egun koloretsu hauetan, «urte osoan zehar jendea normal jantzita ikusten duzu eta egun horietan erabat transformatzen direla ikustea ikusgarria eta hagitz polita izaten da».

Zako zaharrez aparte, Davidek seme alabak dituenetik «elkarrekin» mozorrotzen dira «inauterietako astelehenean» eta «karrozarekin eta ikastolako hurrekin hagitz gustura» ibiltzen dira herriko karraketan barrera. Hurrek ere «inauteriak ilusio handiz hartzen dituzte» eta horrek poztu egiten du aita.

Aurten ospakizunak «horren goiz eta agudo» etorri direnez, «hilabete bat lehenagotik» hasi dituzte prestaketak. «Gehienbat karroza egin behar baldin bada, orduka eta taldeka antolatu beharra dago» eta horretarako garaiz ibili behar da. «Urtero egiten den gauza denez, urtetik urtera hobetzen joaten zara», beraz, «hilabete bat lehenagotik hasita denbora soberan» izaten dela dio Davidek.

Belarra eta zakuak prest, zapi xuriari hiru zulo egin, lastozko zapela jarri eta pixontzia duen makila hartuta topatuko duzue David aurtengo inauterietan ere. «Batzuendako motel xamar» ibiltzen dira, «bertzeendako zakar xamar»... Ea aurtengoan nola portatzen diren zako zaharrak!

«Urte osoan zehar jendea normal jantzita ikusten duzu eta egun horietan erabat transformatuta»



**IÑAKI JANARIDENDA**  
ONGI PASA INAUTERIAK  
Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

**ZOANSA** ONGI PASA INAUTERIAK  
VW SEAT Audi HYUNDAI  
MARKA GUZTIEN KONPONKETA  
MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA  
Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05  
e-mail: zoansa@zoansa.com  
Banarta, 2 • Alkaiaga Ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)

**KOXKONTA** JATETXEA | LESAKA  
IÑAUTERIETAN OTORDU GOXOA GUREKIN  
Ongi pasa inauteriak!  
T. 948 627 519

**KASINO**  
OSTATUA - RESTAURANTE  
ongi pasa inauteriak  
Plaza Zaharra • 948 63 72 87  
LESAKA

# GOIZUETA INAUTERIAK

Otsailak 6, 7, 8, 9 eta 13

## Oxeguarda ostatua

Ongi pasa inauteriak!



T. 948 514 019 • Nagusia, 34 • GOIZUETA



INAUTERI ONAK PASA!!

T. 948 514 056  
Plaza | GOIZUETA



Pintxoak, bazkariak eta afariak



Etorri GOIZUETAko fauna ezagutzera!!

Tel. 948 514 102 • GOIZUETA



OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

ONGI PASA INAUTERIAK



K. Nagusia • GOIZUETA • 948 514 242

### OTSAILAK 6, larunbata

09:00 Karparen montajea. **Ondoren** Ha-maiketakoa.



### OTSAILAK 7, igandea

17:00 Gaztetxoek zahagi dantza. 18:30 Dantzaldia Gorka eta Olatzekin. 21:30 Mozorroen afaria.



### OTSAILAK 8, astelehena

08:00 Mozorroen irteera baserrietara. 10:00 Plazaren apaintzea, gaia: Goizuetarock. **Ondoren** konpartsa. 13:30 Ume eta gaztetxoek bazkaria. 14:30 Helduen bazkaria. 14:00-16:30 Tailerrak eta pelikula. 18:00 Txokolatada 19:00 Plazan dantzaldia Gorka eta Olatzekin. 19:30 Mozorroek etorrera herrira dultzaineroekin. 22:00 Mozorroek afaria.

### OTSAILAK 9, asteartea

09:00 Mozorroek gosaria. 10:00 Mozorroek eskea herrian. 14:00 Mozorroek bazkaria.

17:00 Zahagi dantza, Izkiña tabernatik hasita. 19:00 Txamukos mariatxiak karpán. 22:00 mozorroek afaria. 23:30 Dantzaldia Beñat eta Fernando aranztarrekin karpán.



### OTSAILAK 13, larunbata

09:00 karparen desmontajea. 12:30 potea Igandea txarangarekin. 14:00 Mozorroek bazkaria. 17:29 potea igandea txarangarekin. 23:30 Skabiden taldea Gaztetxean.



ONGI PASA INAUTERIAK!!

WWW.ZUBIMUXU.COM

663 85 85 02

**anaiak s apezetxea'**  
**eskabazioak**  
ONGI PASA INAUTERIAK

kanalizazioak mini-retroak

eskollerak

Idoieta, 71 - 1.A  
31754 GOIZUETA - Nafarroa  
Tel. 650 20 16 27  
699 63 24 80  
www.apezetxeanaanaiak.com  
excavaciones@apezetxeanaanaiak.com

# ETXALARKO INAUTERIAK

Otsailak 4, 7, 8 eta 9



## OTSAILAK 4, ortzeguna

**Goizean** haurrak eskean ibiliko dira **etxez-etxe. 14:30ean** Landagain eskolako ikasleak plazatik aterako dira trikitilarien laguntzaz eta herriko xoko desberdinetan **antzerkiak** eta **dantzak** eginen dituzte. Aurten gainera Arantzako ikasleak ere etorriko dira antzerkiak ikustera. **Ondotik** Guraso elkarteak eskainitako **berendua** izanen da guztientzat **musikaz** lagundua.



## OTSAILAK 7, igandea

**Zaldun Inaute** egunean **kinto bestak** ospatuko dituzte.



**ETXALARKO UDALAK**

INAUTERI ONAK OPA DIZKIZUE ETXALARTAR ETA BISITARI GUZTIEI

**PLAZAKO denda**

ONGI PASA INAUTERIAK!  
ETXALAR • 948 635 026

**HERRIKO OKINDEGIA**

ONGI PASA INAUTERIAK!

Ogi naturalak, ama oreaz eginak:  
Espelta | Garia | Zekalea

Egunero irekia: 06:00 > 13:00 • T. 661 76 70 27 • ETXALAR

**ELUTSA**

OSTATUAN

TABAKOAK

INAUTERI ONAK  
PASA ITZAZUE!

Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR

**haritzpe**  
Etxalarke zaporea

ONGI PASA INAUTERIAK!

Goikolanda, 8  
31760 **ETXALAR**  
T. 618 778 328

# DONEZTEBE INAUTERIAK

Otsailak 4, 5 eta 6

**Arozena**  
ostatu · jatetxea

Gosariak  
bazkariak  
eta afariak

ongi pasa  
inauteriak!

T. 948 450 443  
Leitzako errep., 84 · Doneztebe

**Bidasoa**  
GASOLINDEGIA

A, B eta C  
motako  
GASOLIOA  
ETXERA  
**24**  
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

**LA MASCARA**

inauterietako  
mozorroetan  
den-dena  
daukagu

Era guztietako  
osagarrien  
salmenta

Makillaje profesionala

[www.lamascara.es](http://www.lamascara.es)  
mascara@lamascara.es

Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04

**ONGI PASA  
INAUTEROLAKO**

**• NURSTUDIOPIILATES •**

- PILATES METODOA • K-STRETCH METODOA •
- METODO HIPOPRESIBOA •
- REBALANCING BODY WORK •

NURIA FUEJO RIFÉ

M. 627 039 233 • @.nurfuejo@gmail.com  
Rosa Seminario 7-behea • 31740 DONEZTEBE

**EDERKI** tailerra

**CITROËN**  
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa  
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

**24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA**

ongi pasa inauteriak!



**OTSAILAK 4, ortzeguna**  
20:00 Trikipoteoa. 21:00 Afaria Belarra kafetegian.



**OTSAILAK 5, ortzirala**  
09:00 Baserrietan eskea. Gazteak bi taldetan banatuko dira eta behin baserrietako eskea egin eta gero, eguerdian beriz ere elkartu eta Leitzarako bideko tailerrak bisitatuko dituzte. 14:00 Bazkaria Belarra kafetegian. Bazkalondoan musika Modestorekin. 21:00 Kuadrilen afaria.



**OTSAILAK 6, larunbata**  
17:00 Orgen desfilea Aparandik aterata. (Orga eta moztorro hoberenak sarituko dituzte Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak eta Udalak). 22:00 Kuadrilen afaria.





**Joseba SARRATEA OIARZABAL**

## «Soinean daramazun mozorroa ez da garrantzitsua, sortzen den giroa da gustatzen zaidana»

Baserriz baserriko bidean ibilia, duela hiru bat urte mandarra eta zapela utzi eta bera da orain baserrian gosaria bertzei eskaintzen diena, «**erreleboa eman beharra dago**». Inauterizaleztat du bere burua Josebak «**baserrietan ibiltzeari utzi nionetik, lagunekin elkartu, bazkaldu eta lasaixeago ibiltzen naizen arren**».



Donezteben inauteriak ortzegunarekin hasten dira «**elkarte edo ostatu batean gazteen afaria izaten da, muskariren batekin. Azken urteetan Modesto ibili da herria pixka bat alaitzen**». Triki-poteoa egiten da herritik afaldu aitzinean eta «**giro polita**» sortzen dela dio, «**bateko eta bertzeko lagunak elkarrekin ibiltzen gara**». Etxeratzeko ordua norberak neurtzen omen du «**batzuk goizaldeko ordu tikiak arte geratzen dira, bertze batzuk goiz lekutzen dira etxera baserrietan ibiltzeko indarrez egoteko eta egun bateko besta hurrengoarekin lotzen dutenak ere badira**».

Ortziralean eskearen txanda izaten da eta azken urteetan giroa zertxobait aldatu dela iruditzen zaio «**ni hasi nintzenean, duela 10 bat urte, giroa hobea zela iruditzen zait. Talde tikiagoa ginen, denera 40 bat**

**lagun. Orain jende gehiago ibiltzen da, bikoitza ia**». Kopurua tikiagoa izanda, beraien artean harreman estuagoa sortzen zela uste du «**kuadrila batekoak eta bertzekoak elkartzen ginen, gure kuadrilako hiru lagun, bertzeko bortz... herriko jendearekin egoteko modua zen. Baserrietan egoten zinen, eskertzen zenuen ematea... Baserrietan lasai ederrean egoteko aukera izaten genuen eta giroa ere goxoagoa izaten zen**». Aitortu digu pena puntu batekin erabaki zuela eskean ez ateratzea, baina «**batzuk utzi beharra dugu, gazteagoek ibili ahal izateko. Jende pila gara bertzela**».

Orain taldea handia denez, goizez egiten dute baserrietako eskea, batzuk alde batera eta bertzeak bertzera joanaz. Herrian barna ere ibiltzen dira eta gero eguerdi aldera tailerrera joaten dira «**gero bazkaldu eta bazkalondoa musika izaten da ilunabar arte. Ilunabarrean mozorrotzera joaten gara, gauerako prestatzeko**».

Larunbatean, bezperako mozorroa kendu eta berria soinean jarrita atera ohi dira karrikara «**larunbat eguerdian kuadrila juntatzen gara bazkaltzeko eta gero karrizarekin desfilean ateratzen gara**». Mozorroaz galdetuta, bere ustez «**soinean daramazun mozorroa ez da garrantzitsua, bat edo bertzek ez du inporta. Sortzen den giroa da gustatzen zaidana**».

Ardoa freskatzen jarri, jatekoa erosi eta baserrira bisitan joanen direnei atea irekitzeko prest dago Joseba. Ortziral eta larunbateko mozorroa ere prest izanen du eta ziur inauterietako osagai nagusia, besta gogoia ere, ez zaiola faltako.

«**Ni eskean hasi nintzean talde tikiagoa ginen. Hala, baserrietan lasai ederrean egoteko aukera izaten genuen eta sortzen zen giroa goxoagoa izaten zela uste dut, familia tiki baten tankerakoa**».

# MALE-REKA

LANERAKO ARROPA PERTSONALIZATUA

ONGI PASA INAUTERIAK

Nagusia, 1 · DONEZTEBE · 948 451 571 · 636 885 190  
male-reka@male-reka.com · Male-Reka

# BELARRA JATETXEA



Ameztiá · DONEZTEBE · 948 450 306 · www.restaurantebelarra.com

# Mendaur Motor

Autoen konponketa eta salmenta  
Txapa eta pintura



ongi pasa inauteriak!!

Leitzako bidea · DONEZTEBE | T. 948 450 333



Inauteriak, inauteriak,  
aratusteak, inoteak...

txukuntasunez eta errespetuz  
elegante pasatzea opa dizue

**DONEZTEBEKO UDALAK**

herritar eta bisitari guztiei

## LEITZALDEA

Duela bost urte inguru hasi zen Maite Aramburu emagina Aresoko Osasun Etxean lanean. Bertako emakumeek zerbitzua «etxe ondoan jasotzeko eskubidea» zutela pentsatuta, hilabetean behin kontsulta ire-

kitzea erabaki zuen. Hogei pertsona hartatu ditzake horrela hilabetean, baina jendearen erantzuna ordea ez da espero zutena izan. Kezka puntu batekin solastu zaio TTAPI TTAPari «etortzen direnak oso gustura dau-

dela diote baina aferra da, behar baino jende gutxiago etortzen dela». Horregatik, bertako emakumeei egin die deia, «toki egokia dugu hemen, bitartekoak ere bai eta gu laguntzeko prest gaude».

Maite ARAMBURU ELOSEGI | Leitzaldeko emagina

# «Haurdunalditik haratago, emakumeen bizitzako etapa desberdinetan bidelagun izaten gara»

Eneritz IRAOLA | ARESO

### Noiz hasi zineten zerbitzua eskaintzen?

Duela bost urte inguru hasi ginen hemen Leitzaldeko emakumei emagin zerbitzua eskaintzen. Kontsulta euren etxeetatik gertu izateko eskubidea dutela uste dugu eta ni hilabetean behin honat etortzeko prest nengoen, martxan jarri genuen zerbitzua. Hasiera batean, kontsulta Leitzako Osasun Etxean jartzeko asmoa genuen, baina leku faltagatik, Aresoko Osasun Etxean jarri genuen azkenean. Hilabetean behin, 08:30 aldera hasi eta 14:00ak arte egoten gara bertan.

### Zerbitzua eskura jarri baina...

Jendearen erantzuna ez da ez, espero genuena izan. Egia esan, ez dakigu zein den arrazoia, baina bada zerbait huts egiten ari dena. Irurtzun eta Etxarri Aranazko esperientziak izan ziren Leitzaldekoaren aurrerariak eta bertan oso ongi funtzionatu izan du. Hemen berriz, etortzen direnak zerbitzuarekin oso gustura daudela diote baina aferra da, be-

har baino jende gutxiago etortzen dela. Hemen berez, bada jendea hilabetean behin kontsulta nahiko bete edukitzeko. Ezjakintasuna, gaizki ulertua, ohiturak... arrazoiak desberdinak izan litezke. Emakumeak libre dira nahi dutena aukeratzeko, baina gu hemen gaudela behintzat jakin dezatela.

### Ezjakintasuna aipatu duzu, zeren inguruan?

Emaginaren egitekoa bera, ongi azaldu beharreko kontua dela uste dut, gaur egun oraindik, uste okerra dago eta gizartean. Askok emaginaren egitekoa haurdunaldiarekin bakarrik lotzen dute eta hori ez da horrela. Emaginak gaur egun emakumei bere prozesu fisiologiko guztietan laguntzeko prest gaude. Hori izan liteke, adibidez, hilekoarekin dituzten zalantzak argitzea. Gure egitekoa ez da emakumeak entzun, jaso eta botikak ematea. Gu prozesu guztian bidelagun izateko gaude. Emakumeak etapa desberdinetan izan ditzaketan zalantzak, naba-

### HERRIKO OROITZAPENAK

«Emakumeak libre dira nahi dutena aukeratzeko, baina gu hemen gaudela behintzat jakin dezatela»

«Ez guke halakorik nahi, baina erabiltzaile nahikorik ez bada, zerbitzua mantentzea zaila da. Eta behin kendutako zerbitzua berreskuratzea ia ia ezinezkoa»

ritu ditzaketan aldaketak... argitzen saiatzeko gaude. Sexualitatea ere asko ari gara lantzen, desio falta, lehenbiziko harreman koitalak, antisorgailuak...

### Prebentzio lanaz, azterketak egiteaz, ere arduratzen zarete?

Urte batzuk daramatza gu prebentziorako azterketak egiten. Zitologia, esplorazioa eta bisualizazioa guk geronek egiten dugu. Duela urte batzuk arte, ginekologoak bakarrik arduratzen ziren horretaz baina horrela segitzeak ez zuela zentzurik ikusi genuen. Osasunbidean,



ARGAZKIA: E. IRAOLA

Maite Aramburu, Aresoko Osasun Etxean.

ginekologoak gainezka zeudela ikusten genuen eta gu horretarako prestatuak geundela, horregatik, azterketa hauek egiteko baimena eman ziguten.

### Zergatik iruditzen zaizu beharrezkoa zerbitzu hau mantentzea?

Finean herritarren eskubide bat delako. Toki egokia dugu hemen, bitartekoak ere bai eta emagina, kasu honetan ni, prest nago hona lanera etortzeko. Kontuan izan behar da, Iruñera joan etorrian adibidez 100 kilometro daudela eta askotan duten beharrerako ginekologია ez dela beharrezkoa, guk egin dezakegu. Gainera, pentsatu behar dugu bolada bereziki izaten direla ema-

kumearentzat, aldaketa garaiak: nerabezaroa, haurdunaldia, haurdunaldi ondoko hilabeteak, jaioberriarekin, klimaterik... Konfiantzari ere garrantzia ematen diogu, emakumeak emagin berdinarekin egotea garrantzitsua dela uste dugu. Hobe da prozesu guztia pertsona berdinak segitzea. Konfiantza, konplizitatea... oso desberdina izaten da ezagun batekin. Edozein gauzetarako etorkizunean ere ez duzu arazorik kontaktuan jartzeko.

### Zein da zabaldu nahi duzun mezua?

Leitzaldeko emakumei zerbitzu hau erabiltzera animatu nahi nieke, ni zain egonen naiz laguntzeko prest.

OSPAKIZUNA → ESKEA, AFARIAK, MUSIKA...

## Inauteri giroak ilbeltzaren 29 eta 30ean hartuko du herria

Larunbateko 'Aiso ezautuz lehiaketa' da aurtengo nobedadea

Juana Mari SAIZAR

Jendea mozorroen prestaketak amaitzen ari da dagoeneko eta ia guztia prest dago aurtengo inauterietarako. Aurten ere izango da non gozatua, herritar guztientzako ekintzak antolatu dira eta. Berrikuntza larunbat arratsaldean egingo den "Aiso Ezautuz" lehiaketa izango da. Lagun Artekoek azaldu dutenez aurten afariko menuak aldaketa batzuk izango ditu, eta ez da tiketik erosi beharko. Momentuan bertan ordainduko da. Prezioa urterokoa izango da: helduek 16 euro eta haurrek 8 euro ordaindu beharko dituzte. Mozorro onenaren saria ere emango dute afalostean, bai helduentzat eta baita haurrentzat ere. Beraz ea eguraldiak laguntzen digun, atera mozorroak eta gozatu inauterietaz! Hona hemen egitaraua:

**Ilbeltzaren 29an**, ostiralean, 15:30ean eskolako haur eta irakasleek herrian kalejira egingo dute. 16:30ean Pake Tokin merienda ederra izango dute eta indarrak hartutakoan plazan dantzan aritzeko aukera izango da, Gorka eta Olatz musikariaren erritmora. 18:30ean herriko eskeak abiatuko da plaza



UTZIRAKO ARGAZKIAK

Argazkietan ikus liteke, iaz eguraldiak lagundu ez zuen arren herritarrek ederki pasa zutela.

tik eta 21:30ean Pake Tokin Lagun Artekoek afaria egingo dute.

**Ilbeltzaren 30ean**, larunbatean, 10:00etan Pake Tokin Lagun Artekoen gosaria izango da. 11:00etan baserrietako eskea hasiko da eta 17:00etan Karrozen desfilea egingo da plaza zaharretik abiatuta. 18:30ean Aiso Ezautuz lehiaketa egingo da

udaletxeko goiko solairuan. Jarraian musika izango da plazan Antton eta Belokiren eskutik eta segidan herri afaria Pake Tokin. Afal

ondorena Antton eta Beloki musikariek alaituko dute eta festa izango da goizaldera arte.



### Ba al zenekien

**Ulizarren indusketa lanak hasi direla. Burdina Taldearen eskutik, Xabier Alberdi eta Josu Etxezarraga arkeologoaren zuzendaritzapean ari dira lanean. Boluntarioak behar direla ere jakinarazi dute, animatu eta informatu Udaletxean!**

### GIZARTEA

Herritarren parte hartzea bultzatu nahi du Udalak

### TTIPI-TTAPA

Areso Eraikiz udal taldeak, parte hartzea erraztu eta sustatzeko beharra ikusirik, lan molde berriak jarri ditu martxan. Hainbat bilera egin ditu azken hilabeteetan herriko elkarte eta eragileekin beraien kezka eta beharrak ezagutzeko asmoz. Asko dira orain artean jaso dituzten iritzi eta proposamenak, batzuk egingarriagoak bestek baino. Esate baterako, behin eta berriz agertu da eremu estali bat izateko beharra (plaza estaltzea, bestelako eremuak estaltzea...). Jasotako proposamen guzti hauek aldizkaritxo batean bildu dituzte eta etxeko banatu. Informazioa eskura jarritz, herritarrek batzarretara informatuta joateko aukera eman nahi dute gero batzar horietan aztertuko diren gaien inguruan denen artean erabakiak hartu ahal izateko. Dinamika honekin lotuta, urtarrilaren 22an, Hogeikoa antolatu zuen Udalak. 18.000 euro ditu udalak inbertsionarako eta diru hori zertara bideratuko den erabakitzeko orduan herritarrei emango diete hitza. Parte hartzaile bakoitzak bozka bat izango du eta herrian erroldatuta dagoen edonork parte hartu ahal izango du. Bilera honetan hitz eginda koari buruzko informazioa hurrengo aldizkarian izango duzue.

## LEITZA

GIZARTEA → SEI-HILABETERAKO

## Leitzako bi gazte kontratatu ditu udalak herri-lanetarako

Nafarroako  
Gobernuko  
Gazte bermea  
programa  
baliatuta

JM BARRIOLA

Nafarroako Gobernuko Gazte bermea programa baliatuz, Leitzako Udalak langabezian zeuden bi gazte leitzar kontratatu ditu sei hilabeterako.

Gazte hauek dagoneko lanean hasi dira, eta ekaina amaiera arte arituko dira printzipioz. Beraz, urtero egin ohi diren udako kontratazioez gain hartutako erabakia izan da.

Gazte hauek kanpoko lanetan errefortzu gisa eta Udalak burutu nahi dituen hainbat obretan arituko dira.



ARGAZKIA: JAVIER BERGASA (DIARIO NOTICIAS)

## Oinatz Bengoetxeak ireki du Nafarroako txotxeko denboraldia

Lekunberriko Toki Alai sagardotegian ireki zen urtarrilaren 15ean, 2016ko txotxeko sagardotegi denboraldia. Oinatz Bengoetxea pilotari leitzarria izan zen sagardo berria dastatzen lehena eta «gozatzeko modukoa. Ona zegoik» adierazi zuen, lehen tragoxka edan eta gero. Lekunberrikoarekin batera, Lekarozko Larralde, Lesakako Lindurrenborda, Berueteko Behetxonea eta Aldazko Martitxonea sagardotegiek osatzen dute Dolarea, Nafarroako Sagardotegien Elkarte eta aurreko 200.000 bat litro sagardo kupeleratu dituzte.

## MARKEL AZKARGORTA IZANEN DA LEHENDAKARIA AURRERANTZEAN

Mendialdea Mankomunitateak 2016ko aurrekontuak aurrera atera ditu

JM BARRIOLA

Ilbeltzaren 15ean egin zen Leitzan Mendialdea Mankomunitatearen batzarra. 2016ko aurrekontuak onartu zituzten ordezkarien gehiengoarekin. Aurrekontua 511.066,41 eurokoa da. Lehendakari al daketa ere egin dute, Leitzako hautetsia den Markel Azkargorta Cid, izan den aurrerantzean lehendakaria. Dagoen lana eta proiektuak aurrera eraman ahal izateko dedikazio osoz ariko da zeregin honetan. Konpostaje inbertsioa 43.000 eurokoa izan dena, mantenu lanetarako 6.000 euro, karakterizazioarako 4.000 euro, dibulgazioarako 2.000 euro.

Berehalako lan erronken artean, hodakin kudeaketa optimizatzea, tokiko garapen proiektuak lantzea eta lan taldeak osatzea dituzte. Mankomunitatea bera ere indartu nahiko lukete maila estratategikoan eta horretarako hausnarketa prozesua martxan jarriko dute. Tasak ere mantendu egingen dira igoserarik gabe. Mendialdea Mankomunitateak 6.599 biztanle hartzen ditu (Arano, Areso, Goizueta, Larraun, Lekunberri eta Leitz) eta



UTZITAKO ARGAZKIAK

Markel Azkargorta da lehendakari berria.

bertan sortzen diren hondakin guztiak behar bezala bideratzea du zeregin nagusia.

## GIZARTEA

Udalak  
%18,88 jaitsi  
du zorpetzea  
2015 urtean

JM BARRIOLA

Aurreko urteetako norabidea jarraituz, 2015. urtean ere, Leitzako Udalak duen zorpetzea nabarmen jaitsi du. 2014. urtea, guztira, 1.367.510 euroko zorpetzearekin amaitu zuen eta 2015. urte amaieran, aldiz, 1.109.310 eurokoa izan da. Beraz, azken urtean, zorpetze maila % 18,88 jaitea lortu du. Honetaz gain, esan behar da, Udala Gobernuak azken hilabeteetan egin duen azterketa eta hausnarketa prozesua amaitu duela, eta lau urte hauetan programa betetzeko aurrera eramango dituen egitasmoak zehaztu eta lehen tasunak finkatu dituela. Hau dela eta, laister 2016. urteko aurrekontuak prest izatea espero du.

## FLASH

## Agate bezpera ospatzeko eskea

Otsailaren 4an Agate bezpera izaki, egunean zehar gaztetxoak kantuan ibiliko dira etxez etxe eskean. 18:30ean, helduen txanda izan dena, ALKE kultur taldeak antolatuta plazatik kalejiran aterako dira trikitilariak lagunduta. Makil kolpeen erritmoan, koplak zaharrak abestuko dituzte eta kalejira egin ondoren, karrapean mokadua jan eta egarria asetzeko aukera izan dena.

OSPAKIZUNAK → ZOMORROAK DANTZAN

## Urtarrilaren 30ean ospatuko dira inauteriak

Puxka biltzea lzer eta Alabier trikitilariak girotuko dute aurten ere

**Ainhoa ANSA**

Urtarrilaren 30ean ospatuko dira aurten inauteriak. Larunbat goizean 8:30ean hasita ohiko "puxka biltzea" egingo da. Azken urteetan gure festaren luxuzko laguntzaile bihurtu diren lzer eta Alabier trikitilariak girotuko dute ibilbidea. Suron hasi eta hortik, Arranbide eta Bentaberri auzoak pasatzen dira eta gorakoa Xauxar baseritik Latxe aldera egingo dute.

Han Larratxuri baserri-tik, Beheko Herriko etxeak pasatu ondotik herrira iristen dira. Fandangoa eta arin arina dantzatzeko ohitura izaten da eta jendearekin egoten dira umore ederrean.

Egun guztian zehar dantza eta kantua oin eta ahoetan izaten dira. Jendeak dirua eman ohi du baina burduntzia betetzeko gaiak ere gustura hartzen dituzte.

Bazkaria Joseba Manterolak bideratuko du beti bezain esku xamurraz. Zopa eta arku-mea jaten dira eta kantu saio eder bat ere ez da falta izaten bazkal ondoren.

Herri afaria izango da



ARGAZKIAK: JAVIER LEGARRETA

Zomorroak auzoz auzo ibiliko dira, beraien dantzak eskainiz.

gero herriko soziedade-an eta Gari eta Iñaki tri-

kitilariak girotuko dute. Gauean ere ez dira fal-

tako, kantu, dantza eta kontuak.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Merkealdia**

edredoi fundak • albornozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak  
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

# GOIZUETA

GIZARTEA → KOPERATIBA BATEK KUDEATUKO LUKE

## Gasolindegia- buruzko herri galdeketa eginen dute

Ehun lagun bildu ziren ilbeltzaren 16ko bileran

### TTIPI-TTAPA

Herrian gasolindegia bat kudeatuko lukeen koperatibaren gaiak interesa piztu du. Hori garbi gelditu zen ilbeltzaren 16ko bileran, ehun lagunek parte hartu baitzuten. Proiektua bultzatzen ari den komisiok asmoa zein den azaldu zuten: bi tankeko gasolindegia, era honetako beste instalaziotan bezala funtzionatuko lukeena, hau da, txartelarekin eta norbera zerbitzatzuz. Koperatiba egiteko lege baldintzen berri eman zuten zehatz mehatz, baita herriko kotxe kopurua eta errepideko ibilgailuen mugimendua ere, Nafarroako Gobernuko datuekin. Herritarrek ere galderra ugari egin zituzten. Orain etxeko etxeko inkesta egiteko asmoa dute, herritarren jarrera zuzen jakiteko, baina harrera ikusita, aurrera egiteko gogotsu dago komisiok.

### Errepidea

NA-4150 errepideko 16 eta 24 km artean dauden zuhaitzen mozketa lanak direla eta, zenbaitetan errepidea itxia egon daiteke.

### Inauterietaz hausnarketa

Aurtengoan egitaraua gehigarrian izanen duzue, baina hurrengo inauterien inguruan hausnartzeko bilera otsailaren 19an, 18:30ean eginen dute.

### Agate bezpera

Otsailaren 4an, Agate bezpera, urtero bezala koplak kantatuz ibiliko dira herriko kaletan. Plazan bilduko dira arratsaldeko 6:30ean. Edonork parte hartu dezake, euskal jantziarekin. Makilak prestatuak daude.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Herrian gasolindegia-aren inguruko interesa badela erakutsi zuen batzarra.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

### San Anton eguna

San Anton eguna ospatu zuten ilbeltzaren 17an. Baselizan meza ospatu zuten eta gero, azienden bedeinkazioaren ondotik, salda eta pintxoak banatu zituzten.

### PILOTA

## Txapel uzta polita urtea agurtzeko eta urte berriari ekiteko

### TTIPI-TTAPA

Abendu eta urtarril emankorrek izan dira herriko pilotarientzako. Nafarroako Kirol Jokuen kadete mailako finalean, Aizkorbe eta Apezetxeak 22-16 irabazi zieten Mata eta Cuairan-i; alebinetan, Aitor Salaberriak eta Beñat Apezetxeak 18-8 irabazi zieten Barañaingo Nazabal eta Migeltorenari eta lehen mailako jubenetan, Iker Salaberriak eta Mariezkurrenak 22-14 irabazi zieten Garcia eta Cordon-i. Lizarako lau eta erdiko finalean, kadete mailan Antton Apezetxeak 22-10 irabazi zion Lazkaoko Ruiz de Larramendiri.

Ilbeltzaren 15ean, Elgoibar-ko promesas mailako txapela irabazi zuten Iker Salaberriak eta



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Apezetxea eta Aizkorbe eta Salaberria-Aranguren, txapelekin.

Arangurenak, finalean 22-14 irabazita Lerena eta Salaberri errioxarre. Gainera, senior mailako

finala jokatu behar izan zuten segidan Salaberriak, min hartutako Ugalderekin ordez.

GIZARTEA → OTSAILAREN 13 ETA 14AN

# Fruta-arbolak inausteko ikastaroa antolatu dute hirugarren urtez

Xabier Akizuk eskainiko du Arizkunenean

## TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, fruta-arbolak kimatzeko ikastaroa eskainiko du aurten ere Xabier Akizuk Elizondoko Arizkunenean. Izen ematea otsailaren 5a bitarte egiten ahal da eta 16 euro ordaindu behar dute Baztanen erroldatuek eta 20 euro erroldatu gabekoek. Matrikulen eta ikasleen ma-

ilaren arabera bi talde antolatzen ahalko dira. Guttienez 10 ikasle eta gehienez 20 onartuko dituzte eta lekuak izenemate ordenaren arabera emanen dira.

Otsailaren 13an, larunbatean arituendako ikastaroa izanen da eta otsailaren 14an, igande, hasiberriendako. Bietan, 09:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 17:00etara ariko dira. Eguerdian denbora probesteko ikasle bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du, baita kimatzeko aitzurrak ere.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurten ere Xabi Akizuren eskutik ikasiko dituzte inausketaren sekretuak.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

## San Anton eguneko aretxea Almandozko Ariztelaira

San Anton eguna ospatu zuten Elizondon. Beti bezala, zopak banatu zituzten plazan (50 litro salda), bertsolariak aritu ziren kantari eta guttienez 1867. urte-tik Francisco Joaquin de Iriarte Zahar Etxearen alde egiten den zozketa ere egin zen. Beti bezala, Balleko Etxeko balkoian egin zen zozketa eta lau umek atera zituzten zenbakiak: Oihan Bazterrikak (10 urte), Peru Medinak (9 urte), Olatz Iriartek (10 urte) eta Auza Iparragirrek (8 urte). Lehen saria, aretxea, **8.743** zenbakiari egokitu zitzaion. Hain zuzen, San Anton egun berean erosi zuen plazan Almandozko Ariztelaiako Elias Altzuarde Astizek eta kontent ageri zen, Maria Jesus Inda emaztearekin eta Oihame eta Iker bilobekin batera. Bigarren saria, zeria, **7.232** zenbakiari egokitu zaio; hirugarren saria (bi bildots), **4.713** zenbakiari eta laugarren saria, urdaiazpikoa, **2.518** zenbakiari. Azken hiru sari hauek agertu gabe zeuden hau idazterakoan eta otsailaren 6ra bitarteko epea dute saridunek bila pasatzeko. Denera, zozketa honekin 8.200 euroko boletoak saldu aurten Zahar Etxeak, «gero eta gutiago». Izan ere, gastuak kenduta, 5.000 edo 6.000 euro inguruko irabaziak geldituko dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

## BKTren Eguberrietako saskia Iruritako Maddi Opokarendako

Urtero bezala, Eguberrietako saskia zozketatu du aurten ere BKT-Baztango Kirol Taldea eskubalo elkarteak. Aurtengoan, Iruritako Maddi Opoka suertatu da saridun. Argazkian, sariduna bere alabekin ageri da, BKT eskubalo taldeko zuzendaritza batzordeko Rafa Mitxelenarekin.

**Pierresenea**  
OSTATU · JATETXEA  
Jaki tipikoak · Etxeko giroa  
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043  
ORONoz · MUGAIRI

# BAZTAN

GIZARTEA → ILBELTZAREN 13AN JAUREGI INGURUA BIXITATU ZUTEN PARLAMENTARIEK

## Geroa Baik dio herria ez dagoela Aroztegiako proiektuaren kontra

Udal hauteskundetan proiektuaren aldeko taldeek botu gehiago lortu zituztela azpimarratu du

### TTIPI-TTAPA

Baztango Geroa Baik ohar bidez aipatuta-koaren arabera, «Aroztegiako proiektua ez doa baztandarren borondatearen kontra. Borondate hori udalak adierazten du, udala da hirigintza arloan konpetentziak dituen organoa eta proiektuaren alde agertu da».

Baztango Geroa Baik aipatu duenez, «erakunde horretako kide izateaz harro bagaude ere, Baztango Batzar Nagusiak konpetentzia jakin batzuk ditu, Ordeantzetan ongi arautuak daudenak, eta horien artean ez dago Aroztegiakoa bezalako proiektu bat onartzea edo ez onartzea».

Aroztegiako UGPSa lehengo gobernuak onartu zuela maiatzean eta gauegungo Gobernuak, «proiektu hori onartu ondotik egindako errekerimendu batzuei erantzun administratiboa eman bertzerik ez du egin». Geroa Bai-  
ren erranetan, «Gobernuak arduraz jokatu du, legalki eskatzen ahal diren baldintza guztiak betetzen dituen proiektu baten segurtasun juridikoa zainduz eta Baztanen eta Nafarroan in-



ARGAZKIA: NAFARROAKO PARLAMENTUA

Miren Meoki Lekarozko alkateak informazioa eman zien parlamentariei.

bertitu nahi duten inbertsoreak babestuz».

Proiektu honen inguruan Nafarroako Gobernuak jasotzen dituen «eraso eta presioei» aurre egiteko asmoz eta publikoki babesa emateko egin du idatzia Geroa Baik. Modu berean, Isabel Elizalde eta Manu Ayerdiri ere bere elkartasuna adierazi die, «Aroztegia eta gero zer? Plataformak eta Sustrai Erakuntzak fundazioak egindako neurrigabeko kritika injustuak» direla eta.

Baztango Geroa Baik dioenez, baztandarrek ez daude proiektuaren kontra. Geroa Bai, UPN eta Baztango Auzolanean taldeek aspaldian agertu omen zuten proiektuaren aldeko jarrera eta «talde horiek 2.216 bozka lortu zituzten udal hautes-

kundeetan, EH Bilduk eta Ezkerrak 2.044. Egitasmoak gehien ukitzen dituen Lekaroz eta Gartzainen 163 eta 158 botu lortu zituzten, hurrenez hurren. Hori da, eta ez bertzerik, baztandarren borondatea».

### PARLAMENTARIEN BISITA

Aipatzekoa da Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikoko Batzordeak ilbeltzaren 13an bisitatu zuela Aroztegia ingurua, Miren Meoki Lekarozko alkatearen eta Joseba Otondo Baztango alkatearen gidaritzapean, udal ordezkariak eta Aroztegia eta gero zer? Plataformakoak ere bertan zirela. Herriko udal ordezkarien artean bezala, parlamentarien ahotik ere denetik aditu zen egitasmo honen inguruan, aldeko nahiz

kontrako iritziak. UPN, Geroa Bai, PSN eta PPN proiektuaren alde agertu ziren eta EHBildu, Podemos eta Ezkerra kontra. Lekarozko alkatea ere kontra azaldu zen, «PSISak udal autonomiaren aurka egiten duelako eta proiektuak herrian inpaktu handia izanen lukeelako, populazioa bikoiztuz».

### BATZARRAK

Baztango EHBilduk eta Aroztegia eta gero zer? Plataformak gaia lantzeko batzarrak egin dituzte hilabete honetan. Bietan ere «Aroztegiako inposizioaren aurka» azaldu dira parte hartu dutenek eta Geroa Baik, bakarrik, gobernuaren sostengatzen duten bertze hiru alderdien babesik gabe PSISa berrestea onartezina dela aipatu zuten.

### FLASH

#### Errimatuz garenera arrimatuz

Errimatuz garenera arrimatuz kantaldia eskainiko dute ilbeltzaren 31n, igande arratsaldeko 7etan Arizkunenean. Sarrera doan izanen da lekuak bete arte. Oskar Estangaren kantua proiektua da. Musikaren laguntzarekin, bat bateko eta aurrez landutako hip-hop kantak eskainiko ditu.

#### Inauterietako tailerra

7 urtetik goitiko haurrendako inauterietako tailerra emanen du Birbira kolektiboak Arizkunenean ilbeltzaren 30ean, 11:00etatik 13:30era. Kapeluak eta mozorroak egiten ikasiko dute.

#### Bertso-antzerkitxotxongiloak haurrentzat

Ibai Esoain eta Garazi Urretabizkaiaren eskutik *Bikokote 4* eta 10 urte arteko haurrendako bertso-antzerkitxotxongilo ikuskizuna eskainiko dute otsailaren 14an, igande arratsaldeko 5etatik aitzinera Irurritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Sarrera doan izanen da lekuak bete arte.

#### Patxi Urrutia eta Petrikorena libre

04/08 sumarioaren auzian akordioa lortu dute eta auzipetuak libre atera dira, tartean Patxi Urrutia amaiurtarra eta Juan Joxe Petrikorena elizondarra. Iazko abenduaren 3an hasi zen epaiketa, Seguran 2007an egindako polizia operaziotik zortzi urtera.



GIZARTEA → ERREGE EGUNeko BATZARRA

# 15.893 euroko defizitarekin itxi du urtea Elizondok

Halere, 39.204 euroko saldoa dauka banku eta kutxetan

## TTIPI-TTAPA

Elizondoko herriak 15.893,92 euroko defizita edo diru-galera izan zueniaz, 120.084,03 euroko diru-sarrerak eta 135.977,95 euroko gastuak izan baitzituen, Errege Eguneko batzarraren aurkeztutako kontuen arabera. Halere, oraindik 39.204,26 euroko aldeko saldoa dauka herriak banku eta kutxetan.

Mikel Sobrino alkateak eta Xabier Torres kargodunak gidatutako batzarrera ez zen herriar aunitz joan, 30 inguru.

Ohikoa denez, diru-sarrerara nagusia herritarrek ordaintzen duten kuotatik dator, 36.495,90 euro; udazke-

neko ferietako postuengatik 25.202 euro; Elizondoko bestetako sarrerak (zikiro-jatea nagusiki) 24.710,86 euro eta Balleko Etxeak 15 herriei ematen dien aportaziotik 10.931,40 euro jaso ditu Elizondok. Haurren Orakundetik 4.142 euro eta errenta ezberdinengatik 3.209,38 euroko sarrerak izan ditu herriak.

Gastuei dagokienez, handienak Santiago bestek (48.811,75 euro) eta udazkeneko feriek (8.131,75 euro) sortu zituzten. Auzolanean ere 10.378 euro joan ziren, mantenu eta herriko bertze zenbait lanetan (landaketak, parrokiako erlojua eta Herriko Etxea) 8.242,64 euro eta uholdeek sortutako kalteak moldatzen 6.165,94 euro. Kanposantuari dagokienez, 11.128,67 euroko sarrerak izan ziren eta gastuak berdintsu: 11.297,85 euro.

## URTARRILAREN 28AN EGITEKOA ZEN

Elizondon iragarria zegoen etxegabetzea geldiarazi dute

## TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Hipoteka Bitartekari-tza Zerbitzuak ilbeltzaren 28an Elizondon egitekoa zer etxegabetzea geldiarazi dute. Erretiratu-tako senar-emazteek errentan hartua dute pisua eta aitzinera ateratzea lortu ez zuen semearen negozio bateko hasierako inbertsioaren abal-itak ziren. Proiekturako dirua jarri zuen Sonagar SGRk abala exekututzea eta etxegabetzea eskatua zuen, baina asmo hori geldiarazi dute.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

## Ehun urte bete ditu Elizondoko Pakita Erasok

1916ko urtarrilaren 5ean jaio zen Elizondoko Pakita Eraso Olaetxea. Mende bat beranduago, Errege bezperan ospatu zuen ehungarren urteurrena, lau belaunaldi biltzen dituen familia inguruan zuela. Bertze elizondar famatu baten alarguna da Pakita, Jose Mari Munarriz dentistarena. Lau belaunaldi bildu zituen bere inguruan urtetan Elizondo eta Zigako parrokiako organujolea izan zen Pakita Erasok, zazpi seme-alaba, bederatzi biloba eta zortzi birbiloba baititu.

denok gara gu

ikastolan

BILERA INFORMATIBOA:  
OTSAILAK 10. 17:00ETAN  
(PARKEKO IKASTOLAN)

AURREMATRIKULAZIO EPEA:  
OTSAILAREN 15ETIK- 19RA

BAZ  
TAN

ikastola  
UDAL ESKOLA PUBLIKOA

Mendinueta z/g. 31700 Elizondo. Baztan.  
T. 948 45 24 48 - 948 58 02 56.  
baztan@baztangoikastola.com

Baztango Udala

ikastolenelekarte nafarroa

www.baztanikastola.eu

# BAZTAN-BIDASOA

GIZARTEA → ILBELTZAREN 19AN PRENTSAURREAN AZALDU ZITUZTEN

## Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoak zenbait proiektu gauzatu nahi ditu

Eskualdeko baliabideen gida eta mapa berrargitaratuko dituzte

### TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa Turismoa elkargoak 2015eko balantzea egin eta 2016rako dituzten egitasmoen berri eman zuen ilbeltzaren 19an.

2015. urtea berezia izan da, «zeren Bertiz partzuergoaren desagerpenarekin, erronka handi bat zen berriz proiektuak martxan paratzea eta segida bat ematea», aipatu zuen Mikel Albisu presidentek. Alde horretatik pozik daude proposamen edo proiektu gehienak garatu direlako. «Webgunea berri eta webgunearekin batera erreserbarako zerbitzua ere eguneratu dugu». Agenda ere martxan paratu dute. Bidasoko bide berdeari buruzko informazioa emateko *folletoa* ere prestatu dute, 2016ko ferietan banatuko dutena. «Proiektua arras konpletoa da eta gainera gure filosofia da, Bide Berdea Behobian hasten da eta gaur egun Bertizeraino iristen da, baina denborarekin Baztan aldera eta Euroveloaren bidez Plazaola aldera eta kostaldera segida izanen du».

EHIZARI BURUZKO JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK ere aski erroturikoak dira eta arras arrakastatsua suertatu dira



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Belen Urrutia, Mikel Albisu eta Mari Jose Iparragirre, agerraldian.

aurten ere. Azaroa akabailan akitzen baldin baziren ere, eskari handiarengatik kasik eguberriak arte eman dute.

Asmoren bat gauzatu gabe gelditu bada ere, 2015eko balorazio positibo egin dute, «65 kide gara, Nafarroako Gobernuak lokalaren zeresioa egin digu eta poliki poliki elkargoa izena hartzen ari da». Joan den astean Fitur ferian ere parte hartu zuten.

### 2016RAKO ASMOAK

Urte berriari begira, lehenbiziko helburua bazkide kopurua handitzea da, «ea lortzen dugun 100 bazkide izatera iristea». Horretaz gain, hainbat egitasmo konkretu dituzte.

- Eskualdeko baliabideen gida. Arras arrakastatsua suertatu da eta aurten ferietan, bazkideen artean eta turismo bulegoetan banatu da eta agortua dago. Orduan dagoeneko honetan lanean ari dira hurrengo ferietan bana-

tu ahal izateko eta iada udaberri sasoiaren martxan egoteko. «Jendeak aunitz eskertzen du, zeren ez da bakarrik establezimenduen informazioa, baizik eta baliabideen informazioa dago eta orduan, oso produktu osatua da. Aurten 10.000 ale argitaratuko dituzte euskaraz eta erdaraz eta beste alde batetik frantsez eta ingelesez.

- Eskualdeko mapa eguneratzea, bide zikloturistak sartuz. Proiektu hau Europa mailan aurkeztu dute Eder-Bidearen barruan. Hauek ere 10.000 ale argitaratuko dira eta banaketa dohainik izanen da. Proiektu hau 2016aren urte bukaeran, 2017 urtean zehar garatuko da.

- Webgunea mantentzea, eguneratzea eta hobetzea.

- Erreserba zentrala aktualizatzea eta gainera aukera eman aktibitateen erreserbak egiteko.

- Ekitaldien agenda mantentzea.

- Bazkideei bidaltzeko informazioa prestatzen ari dira, elkargoaren berri maizago izateko.

- Formazio ikastaroak.

- Mapa zikloturista. Bide berdea eta bide zikloturista aipatuz, baina horrekin batera berriz ere antolatu nahi dute martxa ziklo turista.

- Bide berdeari buruzko jardunaldi teknikoak.

- FERIA TURISTIKOETARA joatea.

- Hegaztien jardunaldietan parte hartu.

- Jardunaldi gastronomikoen proiektua berri.

- Euskal Herriko Ikasketxeetara "mailing"-a edo informazio berezia bidaliko da.

- Bisita gidatuak, bisita antolatzen dituzten enprekin elkartu eta eskaintza amankomun bat eginez.

- Itxia egon den artisau denda aurten berriz zabalduko da.

- Nafarroako landaturismo federazioan sartu.

### HONDAKINAK

Informazioa duen egutegia banatu dute aurten ere etxez etxe

### TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Baztango Udalak eta Bortzirikiak eta Malerrekako Mankomunitatek zonaldeko etxe guztietara bidaltzen den egutegia prestatu dute. Bertan Hondakin bereziak biltzeko garbigune mugikorren ibilaldiak eta ordutegiak jakitera ematen dute eta baita Hondakinaren inguruko bertzelako informazioa ere, *erran.eus* plataformaren udako argazki lehiaketara aurkeztutako lanekin hornitua.

Hondakin berezien bilketa zerbitzua indartu eta erraztu nahian, herriz herri mugitzen den furgonetarekin segitzeaz aparte hiru etxola jarri dituzte Elizondon (Merkatuko Plazan), Etxalarren (herri sarrerako aparkalekuan) eta Donezteben (Elizagibela auzoaren sarreran). Bertzelako informazioa emateko ere aprobeztatzen dute egutegia.

Gainera, ale bakoi-tzak zenbaki bat du hiru hilabeteko egiten diren zozketetan parte hartu ahal izateko. Eskualdeko dendetan gastatzeko 300 euroko lau erosketaren xar-tela banatuko dituzte.

Hau da lehenbiziko hiru hilabeteko zenbaki sariduna: 4780. Saridunak Bortzirietako Mankomunitatera deitu beharko du (948 63 52 54) martxoaren 31 baino lehen.

GIZARTEA → DUELA HOGEI URTE BEZALA

## Hiru meza grabatuko ditu aurten ere Euskal Telebistak

Horretarako, datozen hiru larunbatetako mezak arratsaldeko 6etan izanen dira

### Margari eta Koro

Duela 20 urte bezala, ETB etorriko zaigu hiru meza grabatzera. Grabazioak egun hauetan eginen dire: hilabete honen hondarreko larunbatean, eta otsailko lehenbiziko bietan (hau da, urtarrilaren 30ean, eta otsailaren 6 eta 13an). Meza horiek bertze ordutegi batean emanen dira: arratsaldeko 6etan.

Gero, biharamunbakoitzeko igandean ikusiko dira mezak, ETB-1ean, goizeko 10etan.

Ahal bezain meza pulita eskaintzeko, kantuk aukeratzeko hasiak dira, eta deialdi berezia egiten da, egun horietan agertzeko, mezara gateko usaia dutenei.

### Eskolako neska-mutikoak Isaban

Negu mottela izaten ari da, baina gure muttiko eta nextak Isaban egon ziren, eta gutti, bai-

na elur pizar batean aritu ziren.

Lehen Hezkuntzako 4. mailatik hasi eta DBH 2. mailarainoko hemeziti ikasle izan ziren gauden urtarrilaren 11tik 15era, Aste Txuria deitzen den horretan.

Aipatu bezala, elur gutti izan zuten, baina bertze gisako ekitaldian aritu ziren, eta xarmanki pasatu zuten. Gainera, gure eskualdeko monitore bat izan zuten, Berako Julen Errandonea.

### Atxuria mendi taldearen urteko egutegia

Atxuria Mendi taldeak 2016ko ibilaldien egutegia prestatu du. Beti bezala uztaila eta abuztuan bakantzak hartuz, gainerako hilabeteetan toki hauek gauden dire:

**Urtarrilean** San Antona gan ziren.

**Otsaila:** Sara-Bera.

**Martxoan:** Bera-Zugarramurdi.

**Apirila:** San Martzial.

**Maiatza:** Aralar.

**Ekainan:** Xareta Egunkoa.

**Irailan:** Zugarramurdiko itzulia.

**Urrian:** Iruñea inguruan.

**Azaroan:** Bera-Biriatu.

**Abenduan:** Aiako Harriak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Gustura ibili ziren eskolako neska-mutikoak Isaban.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Atxuriako mendi taldekoak San Antonerat egin zuten urteko lehen ateraldian.

# URDAZUBI

KIROLA → IRAILAREN 2AN ETA 3AN

## Espainiako Vueltoako etapa bukaera eta hasiera hartuko ditu herriak

Bilbotik abiatuko den etaparen helmuga eta Aubisqueko gainean bukatuko denaren irteera Dantxarinean

### TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 9an aurkeztu dute Santiagon aurtengo Espainiako Vuelta txirrundulari itzulia eta aipatzekoa da, Dantxarinean bukatuko dela irailaren 2ko hamahirugarren etapa (Bilbo-Dantxarinea) eta bertatik abiatuko dela Pirinioetako Aubisque kaxko mitikoan bukatuko den hamalagarren etapa ere.

Bilbo-Dantxarinea etapak 212,8 kilometro izanen ditu eta hirugarren mailako Itziar eta Igeldoko kaxkoak igo ondotik, Aritxulegin barna sartuko da eskualdean (3. maila). Agiña ere igoko dute (3. maila) eta Lesaka eta Etxalarren barna, Lizarieta-ko gaina igoko dute (3. Maila) eta Saratik Urbia (3. maila) eta Otxondo (2. maila) igoko dituzte, Dantxarinean helmugaratu aitzinetik.

Dantxarinea eta Aubisque arteko irailaren 3ko etapak, berriz, 195,6 kilometro izanen ditu eta Aubisqueko kategoria bereziko helmuga ez ezik, Iharpu (1. maila), San Martingo harria (1. maila) eta Marie-Blanque (1. maila) igo beharko dute txirrundulariek.



ARGAZKIA: ALFIL COMUNICACION

Santiago Villares alkatea eta Txomin Iribarren Dantxarineko Ostalaritza eta Merkataritza Elkarteko presidentea Espainiako Itzuliaren aurkezpenan izan ziren.



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

### Ugarana emakume taldea gogotsu

